ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko ekainaren 8a > Astelehena > VII. urtea > 236. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Esango nuke ez garela berriro ere krisiaren aurreko egoerara bueltatuko"

**Mila Larrañaga**
Fagorreko Kontseilu Soziala > 08

**G2a** **Elkartasuna eta eskaintza musika zabala** > 29

ARRASATE
**Aldi baterako etxebizitza utziko diete egoera larrian daudenei** > 16

BERGARA
**Erdi Aroko Azoka egingo du Udalak hilaren 20an eta 21ean** > 17

AUTO LASTERKETA
**Iñigo Martinez, azkarrena zapatuko Gorlako igoeran** > 22-23

HAUTESKUNDEAK > EUROPA 09

## Iniziatiba nagusi, gutxigatik, eta sozialistak ere gora

Iniziatiba Internazionalistak irabazi ditu hauteskundeak Debagoienean EAJren koalizioari 107 boto atera dizkio. Sozialistekin batera izan dira gora egin duten bakarrak. Beste guztiek behera egin dute. Bestalde, 10 debagoiendarretik sei ez ziren atzo botoa ematera joan. > 02-03




(1): EAJ, Europaren Aldeko Koalizioaren barruan aurkeztu da.
(2): Aralar eta EA, Herrien Europa-Berdeak koalizioaren barruan aurkeztu dira. (3): Alternatiba taldeak euren aldeko botoa eskatu du.

PILOTA > FINALERDIA

## Bergara, herri arteko finalera

32 urte pasa dira bergararrak finalera heldu zirenetik > 26

ENERGIA > ELEKTRIZITATEA

## Goi-tentsioko lineak kezka piztu du

Linea elektriko berriak Debagoiena zeharkatuko luke > 04

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40



Umeentzako puzzlea. Nahi?
Zoaz 7. orrialdera




**ESKU-HARTZE HANDIA** Ume, gaztetxo eta guraso askok bat egin zuten *Obatu* leloarekin. JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA > OSPAKIZUNA

# Eskola Publikoaren jaiak, arrakasta

**JENDETSUA** Goizetik hasita, arratsaldea bukatu arte esku-hartzea oso handia izan zen guneetako ekitaldietan

**ORDEZKARIAK** Jaiaren inaugurazio ekitaldian Hezkuntzako eta politikako beste ordezkari asko izan ziren > 11-13

## Debagoieneko emaitzak 2004 2009

| | | Arrasate | Bergara | Oñati | Aretxabaleta | Eskoriatza | Antzuola | Aramaio | Elgeta | Leintz Gatzaga | DEBAGOIENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iniziatiba Internazionalista (1) | 2004 | 1.831 %21,42 | 1.242 %23,45 | 845 %21,72 | 551 %23,92 | 336 %25,3 | 293 %34,31 | 152 %25,76 | 100 %21,98 | 49 %40,16 | 5.399 %23,09 |
| | 2009 | 1.936 %26,47 | 1.465 %30,75 | 970 %27,70 | 669 %32,04 | 351 %28,84 | 351 %41,74 | 203 %38,89 | 132 %30,00 | 55 %52,88 | 6.132 %29,42 |
| EAJ PNV Europaren Aldeko Koalizioa (2) | 2004 | 2.115 %24,74 | 1.835 %34,65 | 1.682 %43,22 | 649 %28,18 | 355 %26,73 | 241 %28,22 | 193 %32,72 | 190 %41,76 | 52 %42,62 | 7.312 %31,27 |
| | 2009 | 1.686 %23,05 | 1.482 %31,10 | 1.441 %41,15 | 516 %24,71 | 319 %26,21 | 216 %25,68 | 168 %32,18 | 160 %36,36 | 37 %35,57 | 6.025 %28,91 |
| PSOE | 2004 | 1.952 %22,84 | 666 %12,57 | 329 %8,45 | 392 %17,02 | 277 %20,86 | 115 %13,47 | 25 %4,24 | 22 %4,83 | 1 %0,82 | 3.779 %16,16 |
| | 2009 | 1.976 %27,02 | 829 %17,40 | 380 %10,85 | 403 %19,30 | 303 %24,90 | 126 %14,98 | 25 %4,79 | 27 %6,14 | 2 %1,92 | 4.071 %19,53 |
| aralar EA Herrien Europa-Berdeak-Independentistak eta ezkertiarrak (3) (4) | 2004 | 1.179 %13,79 | 956 %18,05 | 644 %16,55 | 446 %19,37 | 201 %15,13 | 151 %17,68 | 183 %31,02 | 107 %23,52 | 10 %8,2 | 3.877 %16,58 |
| | 2009 | 732 %10,01 | 563 %11,82 | 408 %11,65 | 290 %13,89 | 132 %10,85 | 99 %11,77 | 107 %20,50 | 96 %21,82 | 7 %6,73 | 2.434 %11,66 |
| PP partido popular | 2004 | 881 %10,3 | 342 %6,46 | 266 %6,84 | 150 %6,51 | 93 %7 | 34 %3,99 | 17 %2,88 | 17 %3,74 | 1 %0,82 | 1.801 %7,7 |
| | 2009 | 626 %8,56 | 252 %5,29 | 194 %5,54 | 114 %5,46 | 65 %5,34 | 28 %3,33 | 10 %1,92 | 14 %3,18 | 3 %2,88 | 1.306 %6,26 |
| EB EzkerBatua Berdeak | 2004 | 430 %5,03 | 177 %3,34 | 80 %2,06 | 70 %3,04 | 50 %3,76 | 11 %1,29 | 13 %2,2 | 11 %2,42 | 3 %2,46 | 843 %3,6 |
| | 2009 | 147 %2,01 | 90 %1,89 | 50 %1,43 | 32 %1,53 | 15 %1,23 | 8 %0,95 | 2 %0,38 | 4 %0,91 | 0 %00,00 | 348 %1,66 |
| IZQUIERDA ANTICAPITALISTA-REVOLTA GLOBAL (5) | 2004 | - - | - - | - - | - - | - - | - - | - - | - - | - - | - - |
| | 2009 | 50 %0,68 | 8 %0,17 | 12 %0,34 | 12 %0,57 | 3 %0,25 | 1 %0,12 | 2 %0,38 | 1 %0,23 | 0 %00,00 | 89 %0,42 |
| Abstentzioa | 2004 | 10.968 %56,2 | 7.238 %57,77 | 5.029 %56,38 | 2.953 %56,18 | 1.956 %59,56 | 800 %48,37 | 655 %52,61 | 399 %46,72 | 91 %42,72 | 30.089 %56,27 |
| | 2009 | 10.858 %59,69 | 7.071 %59,69 | 5.271 %60,01 | 3.242 %60,77 | 2.058 %62,84 | 890 %51,42 | 699 %57,25 | 418 %48,66 | 104 %50 | 30.611 %60,07 |
| Erroldа | 2004 | 19.515 | 12.534 | 8.920 | 5.256 | 3.284 | 1.654 | 1.245 | 854 | 213 | 53.475 |
| | 2009 | 18.192 | 11.846 | 8.784 | 5.335 | 3.275 | 1.731 | 1.221 | 859 | 208 | 51.451 |

(1): Iniziatiba Internazionalistaren botoak parekatu ditugu 2004ko Herritarren Zerrendarekin; ezker abertzaleak botoa horiei emateko eskatu zuen eta eskatu du. (2): EAJ, Europaren Aldeko Koalizioaren barruan aurkeztu da.
(3): Aralar eta EA, Herrien Europa-Berdeak koalizioaren barruan aurkeztu dira. (4): 2004an Aralar eta EA ez ziren koalizioan aurkeztu; hortaz, 2004ko datua kalkulatu dugu bi alderdion emaitzak batuz. (5): Alternatiba taldeak euren aldeko botoa eskatu du.

**DEBAGOIENEKO EMAITZAK**

# Iniziatiba garaile, PSOE ere gora eta besteak behera

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Europak oraindik ez du debagoiendarren interesa behar adina pizten, eta atzoko hauteskundeetan abstentzioak ia lau puntu egin zuen gora: 51.451 laguneko erroldatik, 30.611k ez zuten botorik eman (%60,07; 2004an, %56,27).

Emaitzei dagokienez, Iniziatiba Internazionalista alderdiak irabazi du Debagoienean, bigarrenarekiko (Europaren Aldeko Koalizioa, EAJrena) gutxigatik bada ere: 6.132 boto lortu ditu, emandako boto guztien %29,42, eta aurreko hauteskundeetan Herritarren Zerrendak lortutako emaitzak modu nabarmenean hobetu ditu: hark 5.399 boto lortu zituen, boto baliozkoen %23,09. Hala ere, emaitza globalek ez diote balio izan Iniziatiba Internazionalistari Europan ordezkaririk izateko.

Hala ere, Debagoieneko hiru herri nagusienak kontuan hartuta, beste alderdi batzuek irabazi dute. Hala, Iniziatiba Internazionalista izan da alderdi bozkatuena Aretxabaletan, Eskoriatzan, Antzuolan, Aramaion eta Leintz Gatzagan; Europaren Aldeko Koalizioa nagusitu da Bergaran, Oñatin eta Elgetan; eta PSOEk irabazi du, berriz, Arrasaten.

Bigarren, alde txikiarekin, EAJren Europaren Aldeko Koalizioa izan da, baina behera egin du 2004tik: 6.025 boto lortu ditu, eman diren baliozko botoen %28,91 (2004an, 7.312 boto eta %31,27 puntu lortu zituen).

**Iniziatibak Herritarren Zerrendak izan zituen emaitzak sei puntu hobetu ditu**

**EAJren Europaren Aldeko Koalizioa bigarren, puntu bat baino gutxiagoko aldearekin**

**PSOE, ARRASATEN GARAILE**

Hauteskundeek utzi duten beste datu deigarri bat da PSOEk Debagoienean izan duen igoera indartsua. Hala, Arrasaten irabazi egin du –Iniziatiba Internazionalistarekiko alde txikiarekin–, hango botoen %27,02 lortuz. Debagoienean ia lau puntu igo da: 4.071 bozka lortu ditu, boto guztien %19,53 (2004an, 3.779 eta %16,36, hurrenez hurren). PSOE da bailaran igo den alderdi bakarra, Iniziatiba Internazionalistaz gain (Herritarren Zerrendarekin egin da konparaketa).

**GEHIENAK, BEHERA**

EAJ jaitsi egin da, baina hala izan da alderdi gehienen kasuan: EAJk, PPk, Ezker Batua-Berdeek eta Aralarrek eta EAk osatutako Herrien Europa-Berdeak taldeak jaitsi egin dira. Jaitsierа nabarmenena Ezker Batuarena da: bi puntu jaitsi da Debagoienean, 500 boto, eta gutxiengoko alderdi bihurtzeko arriskuan dago bailaran.

Horrez gain, alderdi berri bat ere egon da Debagoienean: Ezker Batuko talde bananduak, Alternatibak, babesten zuen Izquierda Anticapitalista-Revolta Global koalizioa. Bada, azkenean, ez dituzte aparteko emaitzarik izan ibarrean: denetara, 89 bozka jaso dituzte Debagoienean, denetatik %0,42. Hori bai, herri guztietan izan du botorik koalizio horrek, Leintz Gatzagan izan ezik.




Bergarako Seminarioko hauteskunde-mahai honetan, 23 boto jaso zituzten ia bi ordutan. TXOMIN MADINA

EGUNEAN AIPAGARRI

# Lasaitasuna eta esku-hartze txikia, nagusi

Aurreikuspenak bete egin ziren, eta esku-hartze txikia izan zuten Debagoienean Europako hauteskundeek; lasaitasuna ekarri zuen horrek

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Askok iragarri zuten Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeek ez zutela jendearen interesik piztu, eta ondorioz parte-hartzea beste hauteskunde batzuetan baino txikiagoa izango zela. Hauteskunde eguneko orduak aurrera joan ahala, iragarpen horiek betetzen joan ziren.

Beste batzuetan ohikoak izaten diren ilarak urriak izan ziren atzo, eta irudi kuriosoak ere utzi zituen zenbait kasutan: Bergaran, esaterako, Aranzadi Ikastolan Goiena Telebistako kameralari batek hainbat minutu itxaron behar izan zituen norbait botoa ematera joan arte; eta Labegaraietako hautes-lekuan, ertzainek egunkaria irakurtzeko tartea izan zuten. Batzuek, gerta zitekeena ikusita, hainbat egunkari eroan zituzten mahaira; horixe egin zuen esaterako, Arrasateko Uarkapen egon zen kontu-hartzaile batek.

**MAHAIKOAK, ASPERTUTA**

Oñatin, adibidez, Txiki Txoko haur eskolako hautes-mahai baten %20k bakarrik eman zuten botoa arratsaldeko hiruretarako. Bergaran, Aranzadin, arratsaldeko seietan hauteskunde-mahai gehienetan parte-hartzea %40 baino txikiagoa zen: "Ia bi ordutan, 23 boto bakarrik jaso ditugu", adierazi zuen mahaian egotea tokatu zitzaion batek; eta " hitz batean esateko, aspertuta gaude", gaineratu zuen beste batek.

**LASAITASUNA ETA KEXA**

Ertzantzaren eta herri ezberdinetako udaltzainen esanetan, ez zen aparteko istilu edo arazorik egon hauteskunde egun guztian zehar. Gauza bera jakinarazi zuten San Prudentzioko Gurutze Gorrikoek ere.

Bergaran egon zen Iniziatiba Internazionalista alderdiko kontu-hartzaile batek, bestalde, salatu gura izan zuen, eskatu arren, bere alderdikoei ez zietela erroldarik eman; eta horrek zaildu egiten zuela ikuskatzaile lana.

## balorazioak

**Agurne Barruso** > Ezker abertzalea

"Pena izan da Iniziatiba Internazionalista bezalako alderdi bat, bere izenak dioen bezala herrien elkartasuna bilatzen duena, ordezkari barik geratzea. Baina Hego Euskal Herrian lortutako emaitzen balorazio positiboa egiten dugu: etorkizunerako ateak zabaldu dira, eta argi geratu da ezker abertzalearen indarra esparru soberanistan".

**Lourdes Idoiaga** > EAJ (Europaren aldeko koalizioa)

"Hiru datu nabarmentzeko: batetik, abstentzioa handia izan da, baina Oñatiren kasuan, 2004koaren parekoa. Bigarrenez, EAJ irabazle izan da EAEn eta hori pozgarria da, Araban eta Gipuzkoan sozialistak nagusitu arren; hirugarrenez, Izaskun Bilbao, EAJren ordezkaria, izango da ahots euskaldun bakarra Europako Parlamentuan.

**Aritz Arrieta** > PSOE

"Arrasateri dagokionez, lehen indarra gara eta poztekoa da hori. Aldaketa baten ispilu izan daiteke eta ikusi behar hurrengo udal hauteskundeetan zer gertatzen den. Espainia mailan, PP izan da irabazle baina bi eserleku besterik ez dugu galdu eta emaitza ez da batzuek aurreikusten zuten bezain txarra izan guretako".

**Oxel Erostarbe** > Herrien Europa-Berdeak

"Gure helburua ordezkari bat lortzea zen eta hori lortuta, pozik gaude. Era berean, abertzaleon batasunak Iparraldean lortutako emaitza onak erakusten du bultzatzen dugun ezker abertzale eta zibilak baduela indarra. Azkenik, positiboa da oraingo honetan alderdi guztiek parte hartzeko aukera eduki izana; zorionak guztiei".

**Itziar Lamarain** > PP

"Hauteskundeak irabazteagatik pozik gaude eta baita ere Iniziatiba Internazionalistak ordezkaririk lortu ez duelako. Indarra berreskuratzen ari gara, gauzak normaltasunez eta zentzutasunez egiten ditugulako. Uste dut boto emaileek PSOEren jarduna zigortu nahi izan dutela eta gauzak horrela, baikor gara etorkizunera begira".

**Juan Luis Merino** > EB-Berdeak

"Estatuan lortutako emaitzekin gustura gaude, genituen bi diputatuei eutsiko diegu-eta. Baina Ezker Batuaren beraren emaitzak argi dago ez direla onak izan. Eskuina garaile izatea larritzeko arrazoia da; ezkerra hainbeste alderditan zatituta egoteak ez digu batere onik egin. Polo ezkertiar bateratu baten aldeko apustua egiten dugu guk".

**Ander Rodriguez** > Alternatiba

"Alternatibako kideok Izquierda Anticapitalistaren aldeko botoa eskatu genuen, ezkerra eraldatzeko aukera bezala, baina emaitzak ikusita hausnarketa hau egiten dugu: Espainian eta Europan, eskumaren alde egin du jendarteak, justu, bizi dugun ekonomia krisi honen errudunen alde. Kezkatzekoa, abstentzio maila latua bezala".

HEGO EUSKAL HERRIKO EMAITZAK

# PSOE garaile Hego Euskal Herrian

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Europako Legebiltzarrerako jaso diren emaitzak Hego Euskal Herrian batzen baditugu, PSOE izan da garailea, 262.987 botorekin. Horren atzean EAJ dago 210.641 botorekin. Hirugarrena PP litzateke 191.900 lortuta, eta Iniziatiba Internazionalistak 138.266 eskuratu ditu. Euskal Autonomia Erkidegoan, ostera, jeltzaleak izan dira garaile. Eta Espainian, PP.

**NAFARROAN, PP**

Araban eta Gipuzkoan sozialistak izan dira nagusi; ez ordea, Bizkaian (EAJ) edo Nafarroan (PP). Parte-hartzeari dagokionez, EAEn eta Nafarroan, Espainian baino handiagoa izan da abstentzioa.

Europako Parlamentuan, 9 euskal herritar izango dira: EAJ-ko 1, Aralarreko 1, PP eta PSOE-ko hiruna, eta Frantziako UMD-ko bat.

### Araba

ERROLDA 245.708
ABSTEN. %60,19

| | | |
|---|---|---|
| PSOE | 30.307 | %31,15 |
| PP | 25.048 | %25,74 |
| EAJ (1) | 18.989 | %19,52 |
| Ini. Internaz. | 10.623 | %10,92 |
| EA-Aralar (2) | 4.591 | %4,72 |
| EB-Berdeak | 1.842 | %1,89 |
| Iz. Antic. (3) | 174 | %0,18 |

### Bizkaia

ERROLDA 930.230
ABSTEN. %56,27

| | | |
|---|---|---|
| EAJ | 133.541 | %32,95 |
| PSOE | 112.072 | %27,66 |
| PP | 64.158 | %15,83 |
| Ini. Internaz. | 52.477 | %12,95 |
| EA-Aralar | 17.873 | %4,41 |
| EB-Berdeak | 7.601 | %1,88 |
| Iz. Anticapit. | 787 | %0,19 |

### Gipuzkoa

ERROLDA 559.168
ABSTEN. %60,04

| | | |
|---|---|---|
| PSOE | 57.870 | %25,98 |
| EAJ | 54.510 | %24,47 |
| Ini. Internaz. | 52.181 | %23,42 |
| PP | 26.705 | %11,99 |
| EA-Aralar | 18.499 | %8,30 |
| EB-Berdeak | 3.678 | %1,65 |
| Iz. Anticapit. | 460 | %0,21 |

### Nafarroa

ERROLDA 464.495
ABSTEN. %56,49

| | | |
|---|---|---|
| PP | 75.989 | %37,90 |
| PSOE | 62.738 | %31,28 |
| Ini. Internaz. | 22.985 | %11,46 |
| EA-Aralar | 13.992 | %6,98 |
| IUN-NEB | 6.719 | %3,35 |
| EAJ | 3.601 | %1,80 |
| Iz. Anticapit. | 395 | %0,20 |

**ESPAINIA (eserleku kopurua)** PP: 23 / PSOE: 21 / Europaren Aldeko Koalizioa: 2 / IU: 2 / UPyD: 1 / Herrien Europa: 1

**FRANTZIA (eserleku kopurua)** UMP: 30 / PS: 14 / Europe Ecologie: 14 / MoDem: 6 / FG: 4/ FN: 3 / Libertas: 1

(1): EAJ Europaren Aldeko Koalizioaren barruan aurkeztu da. (2): Aralar eta EA Herrien Europa-Berdeak koalizioaren barruan aurkeztu dira. (3): Alternatiba taldeak euren aldeko botoa eskatu du.

**AZPIEGITURAK** > LINEA ELEKTRIKOA

# Goi-tentsioko linea elektrikoaren proiektuak udalen kezka piztu du



Arrasateko Uribe auzoan dagoen elektrizitate estazioa. JOSETXO ARANTZABAL

## Ibarreko udalek proiektuaren gaineko informazio gehiago eskatu diote Ministerioari

## Alkateek ez dute uste linea elektrikoaren proiektuak bailarari onurak ekarriko dizkionik

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Espainiako Ingurumen Ministerioak ibarreko hainbat herri zeharkatuko lituzkeen goi-tentsioko linea elektrikoa eraiki gura du. Berez Frantziatik etorriko litzatekeen sare elektrikoa Espainiako Estatuarekin lotu eta Galiziaraino eramatea da horren helburua.

Gueñesen (Bizkaia) eta Ezkio-Itsason elektrizitate estazio garrantzitsuak jarri dituzte; eta horiek biak lotzea da Ministerioaren helburu nagusiena.

Hala ere, Ingurumen Ministerioak bi ibilbide posible aurreikusten ditu: bata, Aramaio, Oñati, Arrasate eta Eskoriatzako lurretatik igaroko litzatekeena; eta bestea, Bergaratik.

**AURREPROIEKTUA, UDALETARA**

Orain dela hamabost bat egun, Espainiako Ingurumen Ministerioak linea elektrikoak ukituko dituen udalerrietako erakundeetara jo zuen aurreproiektua aurkezteko; hori baino, txosten bat bidali zieten. Horrekin batera, udal ordezkariei eskatu zien udalerriaren gaineko informazio orokorra, batez ere ingurumenarekin lotuta dagoena, hilabeteko epean prestatu eta bidaltzeko. Udal ordezkariek uste dute informazio hori baliatuta, ingurumen kalteak aztertuko-edo egingo dituztela.

Udaletan harrituta gelditu dira eta jakinarazi dute hain epe laburrean ezin dutela informazio nahikoa prestatu; alegia, horretarako denbora handiagoa behar dutela.

Are gehiago, alkate batzuek esan digute jaso duten informazioa oso urria dela, eta horren bitartez ez dagoela ondo antzematerik linea elektrikoa nondik pasatzea gura duten.

**EPEA HANDITZEKO ESKAERA**

Hala, kaltetuak izan daitezkeen udaletatik kezka agertu dute eta Ministerioari eskatu diote informazioa prestatzeko epea handitzea. Horrez gain, udal batzuek eskatu dute, baita ere, informazio zabalagoa edo zehatzagoa. Udal ordezkariek diotenez, ez da batere argi gelditzen nondik pasa gura duten. Bestalde, Gipuzkoako eta Arabako aldundiek alegazioak aurkeztuko dituzte.

Linea elektriko horrek 400.000 voltio eraman ditzake, eta oso poste altuak behar ditu. Ingurumen Ministerioaren esanetan, asmoa da Gaztela zeharkatzen duten linea txikiak kendu eta horrek ordezkatzea.

**ARAMAIOKO UDALA, LANEAN**

Aramaioko alkate Asier Agirrek jakinarazi digu Ministerioari eskatu diotela informazio zehatzagoa emateko, eta baita herriko hainbat elkarte -ingurumenarekin eta basoekin lotutakoak– eta Olaetako batzarra informa ditzatela.

Agirrek uste du bi ibilbide posible mahai gainean jarri dituztela galera gutxien egingo duena aukera dezaten, baina alkatearen ustez, hori ez da gakoa: "Aztertu behar dena da ea hori gura dugun, komeni zaigun, eta ea bizitza eredu horrekin nora goazen minbizirik ekarriko dien...".

Are gehiago, Aramaioko Udalak asmoa dauka udal webgunean proiektu horren gaineko informazioa sartzeko, herritarrak informa daitezen.

**ARRASATE ERE KEZKATUTA**

Arrasateko alkate Ino Galparsoro ere kezkatuta dago: "Informazio gehiago eskatu dugu eta epea luzatzea; gauza asko daude argitzeko, eta ez dugu uste bailarari onurarik ekarriko dionik. Gainera, badirudi aspaldian gu garela korridorea gauza askotarako".

Galparsorok esan digu Hirigintza batzordea gai horren gaineko txosten zabala prestatzen dabilela.

ESANAK

**"Badirudi aspaldian Debagoiena hau azpiegitura askotarako korridorea dela; azkena linea elektriko erraldoia"**

**Ino Galparsoro** > Arrasateko alkatea

**"Kontua ez da galera gutxien ekarriko duen ibilbidea aukeratzea, baizik eta proiektu hori egitea gura dugun edo ez"**

**Asier Agirre** > Aramaioko alkatea



**POLITIKA** > EUSKO ALKARTASUNAREN ZATIKETA

# EAtik bereiztu diren kritikoek karguetan jarraituko dutela esan du Iñaki Galdosek

EAk erakundeetako karguak bereak direla esan badu ere, alderdia utzi duten kritikoek hautesleen babesa dutela adierazi du Iñaki Galdosek



Hautesleen babesa duela adierazi du Galdosek. GOIENKARIA

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Iñaki Galdos Gipuzkoako Eusko Alkartasuneko presidente ohi eta Alkarbide alderdia sortzeko EAtik bereiztu direnen buruak iragarri du berekin batera joan diren kritikoek jarraitu egingo dutela Aldundian eta Batzar Nagusietan dituzten karguetan, eta ukatu egin du hori transfugismoa dela, hautesleek aukeratu baitzituzten 2007ko foru hauteskundeetan.

**ADOSTASUN FALTA**

Hori horrela, hautesleek hauteslekuetan babestu zuten mezua eta gaur egun alderdiko Batzorde Nazionala helarazten ari dena "guztiz ezberdinak" direla kritikatu du Galdosek Mutrikun, herriaren zortzigarren mendeurrena ospatzeko Gipuzkoako Batzar Nagusiek egindako protokolo saio batean. EAtik bereiztu direnen buruak ziurtatu du EAk "utzi duen bidetik" jarraituko duela, eta eurak ez daudela ados ezker abertzalearekin bloke independentista osatzeko alderdiak egin duen apustuarekin. Halaber, ez du baztertu EAJrekin batera lan egitea "lidergo instituzionala" sortzeko asmotan.

**AZPIEGITURAK** > AHT

# AHT Gelditu! Elkarlanak hilaren 13ko Arrasateko agerraldira deitu du

AHT Gelditu! Elkarlanak hainbat manifestazio deitu ditu; Debagoienean, Arrasaten izango da

**J.Z.** > BERGARA

AHT Gelditu! Elkarlanak manifestazioak deitu ditu datorren ekainaren 13rako, Itsasondo-Ordizian, Bilbon eta gurean, Arrasaten. "AHTren aurka gaudenon gainean isuritako intoxikazio informatiboa errealitatea bada ere, aurkakotasun irmoa erakusten duten hainbat ekimen eta jarduera sortzen eta indartzen dabiltza", jakinarazi dute.

**AGIRREREN PROZESAMENDUA**

Bestalde, Elkarlanak Aramaioko alkatea Asier Agirreren prozesamendua salatu du eta "AHTaren eragina jasango duten herriei azpiegituraren gaineko erabakiahalmen osoa itzultzea" eskatu du, eta horrenbestez, ingurumen-eragin handia duten beste azpiegitura-proiektuen gaineko erabakiahalmena ere.




AHTren proiektuaren kontra Arrasaten egindako beste kale agerraldi bat. GOIENKARIA

**etxeko leihotik**



**Inazio Arregi** > 'zuzen@goiena.com'

## Miguel Berlanga

Ez zen zinegile, kantari edo negozio gizon ospetsu bat. Bere berri bere heriotzarekin batera izan dugu. Malagan gertatu zen. Krisi ekonomiko larriak jota, diru beharrean, joko-etxe batean lapurreta egitea bururatu zitzaion laban bat eskuan, biktimak ikaratzeko tresna bakar bezala. Biktimak borrero bihurtu zitzaizkion eta kale bazterrean akabatu zuten harrika. Ankerki; krudelkeriaz.

Lehenengo aldia zen horrelako zerbaitetan sartzen zela. Ez omen zitzaizkion droga konturik ezagutzen. Eraikuntzaren gainbeherak berarekin batera eraman zuen. Langabeziara lehenengo, hanka-sartze tragiko batera ondoren, eta heriotzara azkenean.

**"Langile soil bat ei zen; agian bere ahalmenetatik gora bizi izaten ohitua"**

Langile soil bat ei zen. Agian bere ahalmenetatik gora bizi izaten ohitua; ur-bitsetan. Lanik gabe geratzeak bere hipoteka eta zorrak handitu zituen.

Krisi ekonomikoak jende asko eraman du aurretik. Ez langabeziara bakarrik. Alemaniako edo Estatu Batuetako dirudunek, zorrei aurre egin ezinik, euren buruaz beste egin dutela jakin dugu . Era duin batean, edo sikiera, eurak aukeratutako moduan. Patua krudelagoa izan da Miguelekin. Ez du hiltzeko modua aukeratzeko eskubiderik izan. Beste batzuek egin dute berari zegokion aukera.

Orain ere txakurrak ortozik!

**> Abstentzioa nagusi orain ere Europan. Diotenez Europar batasuna ez dugu oso barneratuta herritarrok. Politikoek ere ez diote garrantzia handirik ematen. Kanpaina eta aurrekontuak oso ahulak izan dira, gainera.**

**> Realaren 100. urteurreneko ospakizuna izan dugu Bergaran. Bideragarritasun planaren nondiknorakoak ere ezagutu ditugu. Beste 100 urterako ez dakit, baina beste hainbaterako izango dugu taldea. Maila? Ez da orain garrantzitsuena.**

> ERASOA

### Adin txikiko bat bortxatzea leporatu diote eskoriatzar bati

Ertzaintzak Eskoriatzako 72 urteko gizon bat atxilotu zuen egubakoitzean, adin txikiko neska bat bortxatu izanaren akusaziopean.

Ertzaintzak egindako atestatuaren arabera, astean Gasteizko emakume batek 17 urteko alaba prostituitzera behartu zuen. Hala, ustez amak alaba 72 urteko Eskoriatzako gizon batekin nahita utzi zuen, eta horrek neskatila bortxatu zuen.

Eguenean, neskatilak denuntzia jarri zuen amaren eta gizon horren kontra, eta Ertzaintzak biak atxilotu zituen. Deklaratu ostean, epaileak libre utzi zituen biak.

> HEZKUNTZA

### MUk eta Goierri Fundazioak hitzarmena berritu dute

MUko Goi Eskola Politeknikoak eta Goierri Fundazioak hitzarmena sinatu zuten eguenean. Horren helburua zen bi erakundeek 2001ean egindako akordioa berritzea; hala, Goierrin unibertsitate ikasketak ematea.

Horrekin lotuta, MU eraikin berria egiten dabil Goierrin; eta aurreikuspenen arabera, 2009/2010 ikasturterako bukatuta egongo da. Han jarriko dituzte Ingeniaritza fakultatea, Union Lortek teknologian espezializatutako zentroa eta beste.

Eraikin berriak 12 milioi euroko aurrekontua dauka, eta 9.000 metro koadro izango ditu.

**AUTOMOBILGINTZA** > GENERAL MOTORS

# Ibarreko automobilgintza, GMrekin zer gertatuko den zain, baina baikorra da

General Motors-en Europako filial izan den Opel bezero garrantzitsua da ibarreko enpresendako

AEBetako enpresa zein Europako dibisioa bere onera itzuliko direla uste dute bailarako adituek




Bergarako Opelen auto-salmenta gunea. JOSETXO ARANTZABAL

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Gertaera kezkagarriak, baina etorkizunera begira baikor izateko bidea ematen dutenak: hori da, oro har, Debagoieneko automobilgintza sektoreko enpresa zein banatzaileek agertu duten balorazioa AEBetako General Motors kiebra prozesuan sartu ondoren.

General Motors automobil egile erraldoiak 90.000 milioi dolar galdu ditu azken bost urteotan, eta kiebra eskaera aurkeztu du. Debagoienean, GMko Opel, Saab eta Chevrolet markak saltzen dira batik bat, eta GM bezeroa da bailarako automobilgintza enpresa garrantzitsuendako.

**OPELEN SALMENTA, ALBISTE ONA**

General Motors berri bat sortuko da orain, eta AEBetako Obama administrazioak akzioen %60 izango du; langileen pentsio fondoak, %17,5; eta Kanadako administrazioak, %12; gainerakoa oraingo akziodunen esku izango da. AEBek eta Kanadak 40.000 milioi dolar ipini dute GM suspertzeko. Horrez gain, lau marka salduko dira, 14 lantegi itxi eta 20.000 lanpostu galdu, besteak beste. Opel GMren filiala zenaren %65 Magna Sver Bank-ek erosi du, eta Alemaniako Gobernuak 1.500 milioi euro ipini ditu Opeli laguntzeko.

Debagoienari begira, faktore garrantzitsu bat da General Motors Europa ez dela sartu AEBetako GMren berregituraketa planean.

Horri begiratuta, Mondragon Automocion kooperatibak hauxe dio: "Albiste kezkagarriak dira, baina aurkeztu diren birgaitze planek itxaropenak ematen dituzte bai General Motors eta bai Opel bere onera itzul daitezkeela. Hau oso garrantzitsua da Mondragon Automocion-endako, bere bezero nagusienetako bat GM/Opel delako gaur egun".

Debagoieneko beste enpresa batzuek esan dute zer gertatuko den zain daudela.

Modu batera edo bestera, dudarik gabe, erabakigarria izango da bailarako enpresendako GM Europaren jakinarazpena, bere jarduera "normal" jarraitzen duela eta ez dagoela GMren berregituraketa judizial prozesuan sartuta, alegia.

**SAAB ETA CHEVROLET**

Debagoienean, General Motors-ekin lotutako auto marka salduena Opel da, baina beste marka batzuk ere badaude, Saab eta Chevrolet kasu. Bergarako Giauto auto-salmenta guneko Karlos Etxaniz ere baikor agertu da etorkizunari begira: "Alde batetik, General Motors Europa ez da berregituraketa eskaera horretan sartu; bestetik, Opelek aurrera jarrai dezan interes asko daude –Magna enpresarekin ados jarri dira eta Alemaniako eta Espainiako gobernuek ere dirulaguntzak eman dituzte; Espainiako Zaragozako lantegiari ere laguntzeko erabakia dago…–; eta gu oso baikor gara. Azkenaldian zalantza handiak zeuden, baina gauzak argitzen doaz orain".

Saab markari dagokionez ere baikor agertzen da Etxaniz. Izan ere, "Opelekin bezala, Suediako Gobernuak ere interes handia du Saab markak aurrera jarrai dezan, eta badirudi hainbat akordio lortuko direla laster. Gure negozioan, Saab-ek bolumen txikiagoa du, baina garrantzitsua da, eta aurreikuspenak onak dira".

Chevrolet marka, bestetik GM-ek AEBetan duen marka izarra da, "eta horregatik, uste dugu ez dutela inolaz ere desagertzen utziko". Horrez gain, "Europan, eragin txikiagoa" izango du Chevrolet markarekin gerta daitekeenak, deritzo Etxanizek.

Beste auto-saltzaile batzuei galdetuta, Arrasateko Takolo Autoetan ere esan digute Opel orain marka banandu bat izateak lasaitasuna ekarri diela eta "arazorik ez" dutela ikusten.

**BIZI IRAUPENA**

Oro har, Debagoieneko adituen esanetan, badirudi AEBetako General Motors-ek ere bizi irautea lortuko duela, izan ere, aditu horien iritziz, "garrantzitsuegia" da AEBendako hondoratzen uzteko. Badirudi etorkizuna enpresa txikiagoetan zatitzearen bidetik datorrela.

**UDALAK** > UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOA

# Udalek ia 600.000 euro bueltatu dizkiote Aldundiari

Debagoieneko udalei 590.581,64 euro deskontatu dizkiete foru fondoko aportaziotik; 7,8 milioi jaso dituzte

**L.K.** > BERGARA

Debagoieneko udalei 590.581,64 euro deskontatu dizkiete Udal Finantzaketarako Foru Fondoko (UFFF) aportaziotik. Horrenbestez, denetara 7.873.746,62 euro jaso dituzte fondo horretatik, kenketa egin eta gero. Horrela geratu dira aurtengo UFFFren bigarren emanaldiko kontuak.

Fondo hori da Gipuzkoako udalek euren burua finantzatzeko duten bi iturri nagusietako bat, eta funtzionamendua da aurrerapen eta itzultze bidez; hau da, Aldundiak aurreikuspen batzuk egiten ditu udalei zenbat emango dien, eta urtean hainbat ordainketa egiten die.

**%20KO DESBIDERAKETA**

Orain arte, ondo funtzionatu du sistema horrek; baina orain, krisiak Ogasunaren diru-batzeari ere eragin dio, eta horrek ekarri du Foru Aldundiaren aurreikuspenak behera doitu behar izatea; hau da, udalek dirua bueltatu behar izatea. Hala, orain, 2008ko ekitaldiak utzitako zuloak eragindako diru-itzulerak egiten dabiltza udalak. Baina hori ez da txarrena, izan ere, aurtengo ekitaldiak zulo hori handitu egingo du. "%20ko desbideraketa negatiboa izango da", azaltzen dute Debagoieneko udal bateko arduradunek. "%1,5eko desbideraketa, %4koa beharbada… horiek eraman daitezke, baina ez %20koa. Sistema osoa zalantzan jartzen du honek", gaineratzen dute. Etorkizuna beltza izan daiteke udal finantzendako: "Baliteke 2010eko aurrerakinak osorik bueltatu behar izatea udalek".

Baina, sistema zalantzan jartzen bada, horrekin batera, udalek ez dituzten, baina ordaindu behar izaten dituzten eskumenak ere errebisatzea eskatzen dute udalek: "Adibidez, hezkuntza ez da udalen eskumena; baina %40an udalek finantzatzen dugu", gogorarazten du Debagoieneko alkate batek.

Badirudi irtenbidea Udal Lege berri baten eskutik etor daitekeela; azken urteotan zintzilik geratu den proiektu bat.

**Rakel Garcia** > Garapen Ekonomikorako Agentzia

## "Lanbide batzuk berreskuratu egin dira, baina ideia berri gutxi dago"

**L.K.** > ARRASATE

**Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentziak ekintzailetza eta autoenpleguari laguntzeko zerbitzua ematen du.**



L.K.

**Ekimen berriendako laguntza zerbitzua ematen duzue. Zertan datza?**

Doako informazioa eta aholkularitza, sustatzaile berriendako ikastaro eta hitzaldiak, turismo sektorean aholkularitza espezializatua, eta Industria eta Zerbitzu moduluak uzten ditugu Arrasaten eta Antzuolan.

Horrez gain, beste baliabide batzuen gaineko informazioa ematen diegu: Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako udaletan, Saiolanen, Debagoieneko Industrialdean eta INEMen daudenak.

**Egia da krisi garaian ekintzailetza handitu egiten dela?**

Ideia berriak guk ez ditugu gehiago sumatu; lanbide batzuk berreskuratu egin dira, eta geratu diren hutsuneak betetzeko proiektuak ere bai; baina ideia berririk, gutxi.

**Zuengana doan jendeak zer eskatzen du?**

Batik bat, informazio orokor bila datoz; guk hori eman edo bideratu egiten ditugu. Eskaera horiek ia bikoiztu egin dira.

auzorik auzo

**ARAOTZ** > Oñatiko auzo ospetsuenetarikoa da Araotz; hirigunetik bederatzi kilometrora dago. Gipuzkoako auzune ezkutuena dela esan daiteke, Aizkorri, Elgea eta Zarai mendilerroen artean geratzen den Oñatiko auzoa


Mirari Guridi Araotzeko plazan; atzean garai batean eskola izan zen eraikina. JOSETXO ARANTZABAL

**Mirari Guridi** > Araotzeko auzo-alkatea

# "San Migel parrokiako korua Gipuzkoako zaharrenetarikoa da, Antiguakoaren ondoren"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Auzoetan gero eta jende gutxiago bizi da, eta Araotz da horren adibide garbia. 50 baserri daude, bizilagunak, ostera, 25 inguru. Aste bukaeretan joaten da jendea baserrira; oraingoan, Trinitate jaiak ospatu dituzte araoztarrek.**

**Zein da auzoak duen arazo nagusia?**

Errepidea arazo handia da. Oso bide estua da Araotzerakoa eta arriskutsua da. Gainera, Arrikrutzera doan jende guztiaren autoak eta eskalatzera etortzen direnen autoak ere badaude.

Bi bihurgune oso txar daude. Udalak hartu zuen konpontzeko ardura, baina dirudienez ez da lur jabeekin akordio batera iritsi.

**Bestalde, arduratuta zaudete auzoa goitik behera datorrelako?**

Bai, gero eta jende gutxiago bizi da auzoan eta arazoa izan daiteke hori. Horregatik, *Berpiztu* programarekin gabiltza lanean auzoa berpizteko asmoz. Egindako ikerketan azaldu da jendeak joan behar duela auzora bizi izatera; horregatik, etxebizitza batzuk egiteko asmotan gabiltza.

Baina, beti arazo berarekin topo egiten dugu: bidea. Bide horretan egunero aurrera eta atzera ibiltzea arriskutsua da. Konpondu beharra dauka.

**Zer eskaintzen dio auzoak bisitariari?**

Ikustekoa da, adibidez, San Migel parrokia. Atzealdean, koruko aldea, dena egurrezkoa da. Gipuzkoako zaharrenetarikoa da; zaharrena Antiguakoa da eta gero dago Araotzekoa.

Bestalde, Sandaili dago. Ikusteko oso polita da; gertatzen dena da utzita dagoela, ondo zaindu barik. Koba baten barruan dago eliza, ikusgarria.

PERTSONAI HISTORIKOAK

## Lope de Agirre da, duda barik, araoztar ospetsuena

Araotzen pertsonai historikorik baldin badago, hori duda barik Lope de Agirre da. XVI. mendean jaio zen Oñatin Lope de Agirre, eta datu zehatzik ez dagoen arren, araoztarra dela uste da. Amerikelan ibili zen Lope de Agirre eta famatu egin zen Felipe II.ari idatzi zion eskutitzagatik. Bere burua *Askatasunaren printzipe* izenaz bataiatu zuen, besteak beste.

Araotz auzoak eman duen beste pertsonai bat Elortza jenerala da. 1798an jaio zen Araotzen eta 1873an hil zen Madrilen. Militarra izateaz gain, ingeniari ikasketak egin zituen Elortza jeneralak.

**Gainera, Sandailik istorio berezia dauka.**

Bai, hala da. Sandailin aska bat dago, eta hara, ura jausten da. Lehen hara joaten ziren emakumeak haurdun geratzera: busti eta gero familia izaten zuten. Gaur da eguna oraindik haurren arropatxoak uzten dituela jendeak Sandailin, esker ona adierazteko.

**Mendi ibilaldiren bat gomendatuko diguzu?**

Sandailitik bertatik igo daiteke Aitzulora, adibidez. Ibilaldi oso polita da, goiz batean egiteko modukoa. Bestalde, uraren ibilbidea dago, kanalen bidea. Araotz guztiari ematen zaio bueltа. Ugastegi aldera ere bide polita dago.

**Araoztarrek euskara berezia duzue, ez?**

Bai, hori esaten dute. Nik uste dut, batez ere gure garaikoek, hika egiten dugula asko; horregatik da berezia. Oñatira jaisten ginenean berehala konturatzen ziren araoztarrak ginela.

**Egia da Araotzeko parrokiako baranda bat Kondearen etxean dagoela?**

Bai, kanpandorreak lau baranda ditu; horietako bat ezberdina da. Benetakoa Kondearen etxeko balkoi batean dago; zorren bat ordaintzeko-edo erabili zen.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

MUNDUMIRA PACK-A
Mundumira

Mundumirako pack-a.
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.

UMEENTZAKO PUZZLEA
Ikastolen Elkartea

Argitxo eta bere lagunen puzlea.
Bidali AG PUZZLEA 5533 zkra.

KAMISETA
skunkfunk

Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.

PENDRIVE
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14 | S. Josepe, 10 943 77 01 33 | Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Hamasei urtez eta ia beste horrenbestez izan da Mila Larrañaga, hurrenez hurren, Fagor Elektratresnak kooperatibako eta Fagor Taldeko Kontseilu Sozialeko lehendakari. Orain dela astebete eskas hartu du erretiroa, 41 urtez kooperatibako langile lehenik eta Kontseilu Sozialeko kide izan ostean. Kooperatibismoaren baloreak, sorreratik, aldatuaz joan direla uste du.

**Mila Larrañaga** > Fagor Elektratresnak eta Fagor taldeko Kontseilu Sozialeko lehendakari ohia

# "Esango nuke ez garela berriz ere krisiaren aurreko egoerara bueltatuko"

MIREN ARREGI > ARRASATE

**Bergarakoa sortzez, Gasteizen bizi da aspalditik Mila Larrañaga. 41 urtez aritu da kooperatiban lanean eta duela astebete hartu du erretiroa, krisiaren erdian. Krisiaz eta kooperatiben egoeraz jardun gara luze harekin.**

**Krisi ekonomikoaren erdian erretiratzea ez da gauza samurra izango...**

Egia esan, ez. Eta egoera gogorrak ikusi izan ditut urte hauetan guztietan Fagorren. Badakizu sektore desberdinetako lantegiak dituela Fagorrek, eta pasatu ditugu une gogorrak, baina ez egungoa bezalakoak: kooperatiba batzuk gaizki egon dira urte batzuetan, baina taldeko beste batzuk ondo zihoazen bitartean, batak bestea babestu izan du. Une honetan egoera oso da bestelakoa; kooperatiba guztiak, lantegi guztiak daude egoera txarrean. Salmentari dagokionez, aktibitatea asko jaitsi da eta hori da okerrena. Kostuak murrizteko erabakiak hartu daitezke, eta hartu dira, gainera, baina salmentarik ezean, nekez egin daiteke honela aurrera.

**Beraz, halakorik ez duzue aurrez ezagutu.**

Nik neuk ez. Fagor Taldeko kooperatiba guztiak galerak izaten... hori ez dut inoiz ikusi. Oso egoera gogorrak pasatu ditugu, baina halakorik inoiz ez. Gainera, Fagor Elektratresnak irabaziak izan dituen kooperatiba izan da orain arte, eta besteen sostengu bilakatu dena nolabait esateko, baina horrek ere behera egin du nabarmen. Pentsa, Fagor Elektratresnak negosioak Fagor Taldearen %45a suposatzen du. Hori gaizki joateak beste guztian du eragina.

**Eta ikusten dira irtenbideak?**

Epe motzean ez. Luzerakoa da krisi hau, eta gainera, esango nuke ez garela inoiz krisiaren aurretiko egoerara itzuliko. Gauzak hobetu daitezke, baina inoiz ez gara lehengo egoerara bueltatuko.

**Eta lanpostuekin, zer?**

Nekeza izango da, baina saiatu beharra dago behintzat gaur egungo postuak mantentzen. Aurre-jubilazio gehiago egongo dira, eta halako neurri batzuk hartu beharko dira. Orain arte, ebentualak Fagor Taldean 1.400 inguru izan dira; orain ez dago bat bera ere ez. Bazkide gehienak mantentzea ere lorpen bat izango da.



Mila Larrañaga Fagor Elektratresnak negozioko eta Fagor Taldeko Kontseilu Sozialeko lehendakari ohia. FAGOR ELEKTRATRESNAK

**Krisiaren aurrean kooperatiben egoera desberdintzen da gainontzeko enpresetatik?**

Merkatuari begiratzen badiogu, eta kontuan izanda guztiok merkatu berdinean gaudela, egoera berdina da kooperatibetan eta gainontzeko enpresetan. Beste gauza bat da barruan hartu daitezkeen neurriak bereziagoak izan daitezkeela. Esaterako, soldata jaitsierak: Fagorren bozkatu da %8a jaistea soldatak. Etorkizunean, seguru asko, soldata bikoitzak ere kendu egingo dira; estornuak ere egongo dira, hau da, diru itzultzeak... Une honetan helburua da stockean dagoena %50era jaistea. Horrek suposatzen du produkzioa jaistea eta lan egunak murriztea. Gastuak, nola ez, behar beharrezko direnak bakarrik egingo dira, eta inbertsioekin ere berdin. Inbertsioak murrizteak, baina, luzera eragina izango du.

> **"Elkartasuna, parte-hartzea, eta Kooperatibismoaren baloreak transmititzeko ahalegina egin beharko litzateke, berriro "**

**Halako egoeretan kooperatibaren elkartasun zentzua indartu egiten da?**

Historikoki begiratuta, esan daiteke indartu egiten dela zentzu hori. Baina, gertatzen dena da egoera txarrak bizi izan ez dituen jende berria dagoela kooperatibetan, eta horiekin hezkuntza aldetik zerbait egin beharra dagoela. Hori, baina, kooperatibaren akatsa da; ez da jakin baloreen transmisioa ondo egiten. Elkartasuna eta balore etikoak transmititzerakoan akatsak izan dira.

**Arizmendiarrietak ipinitako oinarriak, beraz, denboran galdu dira?**

Egoerek bultzatuta galtzen joan dira balore horietako batzuk. Errentagarritasuna bilatu da, nazioarte mailara zabaldu dira kooperatibak; zentzu horretan, beharrak bultzatuta, kooperatibismoaren balore batzuk ez dira landu: elkartasuna, parte-hartzea... eta halakoak. Jendeak ez du organu erabakiorren parte izan gura, eta kooperatiba batek aurrera egingo badu, beharrezkoa da organu horiek ongi funtzionatzea. Diru faltagatik ere joan daiteke kooperatiba bat zulora, baina konpromiso ezak ere eraman gaitzake horretara. Erreferenduma, demokrazia... eta halakoak piztu egin behar dira.

**Posible da kooperatibismoaren ideiak eta nazioarteko lehiakortasuna bateratzea?**

Zailtasun handiak izango ditu, baina, hemen, Debagoienean, oraindik ere mantendu daiteke. Kooperatibismoa beti joan da egoeretara egokitzen, baina muina mantendu egin beharko da. Berriz, Fagorrek eta beste kooperatibek kanpoan dituzten delegazioetara balore horiek eroatea ez da batere lan erraza. Hala ere, kode etiko bat transmititu beharko litzateke. Kualitatiboki lantegi horiek desberdindu beharko lirateke; esaterako, irabaziak daudenean, langileen artean irabazien zati bat banatuta...

**Erretiroa hartuta, nola ikusten dituzu atzean utzitako urte horiek guztiak?**

Beti gelditzen da gehiago egin daitekeen sentsazioa, baina organuetan egotea asko gustatu zait, nahiz eta une txarrak ere pasatu ditudan. Errepikatuko nuke.


Gipuzkoa,
garai berri bat
Vitoria-Gasteiz
Eibar-Vitoria/Gasteiz autopista. Gipuzkoaren historiako inbertsiorik handiena gure segurtasunaren eta erosotasunaren zerbitzura.
500 m
AP-1
Eibar
Vitoria - Gasteiz
GIPUZKOA
zurekin, aurrera
Eibar

**kale inkesta**

# Asteko hegazkin istripuak bezalakoek hegan egiteko beldurra eragiten al dizute?



**Consuelo Mendoza**
Langilea
Bergara

Bai, beldurra ematen du, izan ere dagoeneko ez dago segurtasunik… Istripu asko dabiltza gertatzen bata bestearen atzetik, eta pentsatzen gabiltza urte bukaeran Boliviara egitekotan ginen bidaia egin ala ez.



**Ana Goenaga**
Langilea
Bergara

Ez, horrelako istripuek ez didate beldurrik eragiten; aurretik ere ez neukan hegazkina hartzeko beldurrik. Nere amak adibidez, beldurra dio hegan egiteari, eta lasaitzeko yoga eta horrelakoak egin behar izaten ditu.



**Aitor Maiztegi**
Ikaslea
Bergara

Beldurra baino gehiago, errespetua ematen dizu. Normalean lasai hartzen dut hegazkina; nik uste dut garraio segurua dela, istripuak gutxi egoten dira. Egia da, baita ere, egoten direnean jende asko hiltzen dela.



**Jesus Galarraga**
Langilea
Bergara

Trankil hartzen ditut hegazkinak, ez diet beldurrik. Tokatzen bada, tira, baina ez da autoekin moduan. Hala ere, nik neuk hegazkin gutxi hartu izan dut. Beldur asko pasatzen duenik, baina, ezagutzen dut.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA

**> Goiko estazioko iturria jartzeagatik zorionak**

Sarritan goiko estaziora paseatzera doan andre batek deitu digu. Eskerrak eman nahi dizkio Udalari edo dagokionari goiko estazioko iturria berriro zabaltzearren, denbora luzean erabiltzerik gabe egon eta gero. Andrearen arabera, benetan eskertzen da, batez ere uda partean, ur freskoa edateko aukera.

ARRASATE

**> Pesaren autobusak eta zerbitzu telefonikoa**

Arrasateko irakurle batek autobus ordutegiarekin gertatzen den kontu batekin ohartu digu. Haren arabera, Pesaren webgunean sartzen den bakoitzean, Eibarreraino doan linea kontsultatzerakoan, ordutegi zerrenda luzea azaltzen da, baina bertan ez da zehazten, esaterako, Musakolako geltokian geratzen diren autobusak zeintzuk diren; hainbat zerbitzu zuzenean doaz eta erdiguneko geltokitik. Era berean, ez zaio logikoa iruditzen zerbitzu telefonikoak informaziorik ez ematea asteburuetan.

OÑATI

**> Usakoko bainu-tokia eta sorosleak**

Joan den urtean Oñatiko Udalak sorosle zerbitzua eskaini zuen Usakoko bainu-tokian. Udako denboraldia hastera doala-eta, emakumezko batek e-posta bat bidali digu, aurten ere zerbitzua eskaintzeko eskatuz, han bainuan eta uretan jolasean ibiltzen diren neska-mutikoen lasaitasunerako.

**usteak uste**

**Xabier Urtzelai**

# Boluntarioak falta direla?

Aste gutxi dela irakurri nuen egunkariren baten geroago eta boluntario gutxiago dagoela kirolaren alde lan egiteko gertu. Eta halaxe da.

Eta, horren aurrean, astebururak utzitako bizpahiru albiste on azpimarratu gura ditut. Batetik, zapatuan ordu berean izan genituen errugbia eta auto lasterketa. Arrasateko errugbi taldeak ondo asmatu du errugbia gizarteratzeko formulan, nahiz eta plazan jartzen duten garagardo jaiko karpara Mojategiko partiduetara baino jende gehiago joaten den.

Bestalde, iazko hutsunearen ondoren, hamarrekoa Bergara Racing taldeari. Azken urteotan disgustu bat baino gehiago izan dute, baina proba antolatzeko ahalegina egin dute berriro.

Eta hamarrekoa, baita ere, Bergarako moto zaleei, cross country-a gurera ekartzearren.

**zorroztailea**



**Larraitz Ugarte**

# Beste hauteskunde oste bat

"Hego Euskal Herrian oraindik aukera gehiago daude, guztira 35 hautagaitza; EAJ barneratzen duen Europaren Alde, PSOE, PP, ezker abertzalearen babesa jaso duen II-HE, Aralar eta EA batzen dituen Independentistak eta Ezkertiarrak eta Ezker Batua. Horien artean jokatuko dira Europarako Estatuari dagozkion 50 aulkiak."
Berria > 2009-06-07




Hauteskunde emaitzak izan aurretik idazten ari naiz eta beraz, abantailarekin irakurriko dituzue, irakurleok, nere lerroak. Abstentzio altuak eta koalizioek emaitzak alda baditzakete ere, alderdien osasunari buruzko argazkia ateratzen saiatuko naiz. Hasteko, alderdi txikiak desegiten eta desitxuratzen ari zaizkigu azkenaldian eta horrek bere isla izan behar du nahitaez. Nere herriko *transfugak* satorraren antza ez ote duenaren susmoa konfirmazio bilakatu zait. Mesede eskasa egiten ari zaio orain arte ordezkatu ei duen alderdiari eta bere proiektu politikoari. Eserlekua badaezpada ez du utziko. Ez dakit nola egin daitekeen hori, baina transfugismoa ere ez dut inoiz ulertu, beraz…

*Transfugen* kontu horrek bere burua abertzaletasunaren eta ezkerraren ikono bilakatu nahi duen alderdia gogorarazi dit ezinbestean eta ez naiz ausartzen globoa puzten jarraituko duen edo globoa honezkero pintxatzen hasi den esatera. Baina pintxatu pintxatuko da, ziur. Horien ezkontideak berriz, nor izango dira hemendik aurrera, Ezker Batua edo horren ezkerreragoko alderdi dibortziatu berria? Buf, ni galdu naiz eta zuek? Emaitza onik behintzat ezin espero, hainbeste nahaste borrasteren erdian.

> **"Estatuko hainbat pertsona ausartak eta eskuzabalak izan dira"**
>
> **"Nere herriko 'transfugak' sator antza hartu du"**

*Destronatuek* saminaren erdian hauteskunde mota honi dagokion beherakada tipikoa jasango dutelakoan nago, baina inkondizional hutsak dira, ezin hori ahaztu, lege zaharra jaungoikoa bezain garrantzitsu zaie.

Hauteskunde hauek, halere, badute beste ezerren gainetik berritasun bat: ezker abertzalearen proiektu politikoa ofizialki eta besteen baldintza berdinetan bozkatu ahal izango da. Konstituzionalistak haserre, besteak deseroso. Agian Espainiako Estatuko hainbat pertsonek Euskal Herriko ordezkari eta alderdi politikoek egin ez dutena egiteko ausardia eta eskuzabaltasuna erakutsi dutelako izanen da. Interesgarria izango da Estatuan jaso dituen bozkak ikustea. Interesgarria ere Herriaren Aldek Iparraldean izango duen boza. Ah, ta zorte on Asturiesko lagunei!

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Txomin Madina, Xabier Urtzelai, Edu Mendibil, Leire Kortabarria **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**Arrasate** > 16 **Bergara** > 17 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19 **Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20




**> ARRASATE**
Larrialdi egoeran dauden herritarrei aldi baterako etxebizitza utziko die Udalak **> 16**



**> BERGARA**
Erdi Aroko azoka egingo du Udalak lehenengoz herrian, hilaren 20an eta 21ean **> 17**



**> OÑATI**
Preso politikoen eskubideen aldeko mozioa onartu zuten udaleko osoko bilkuran **> 18**




Ikasleek, irakasleek eta gurasoek aurreskua eskaini zuten San Martineko eskolako patioan, jaiaren inaugurazio ekitaldian. JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARA** > ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

# Euskal eskola publikoari obatzeko konpromisoa berretsi zuten Bergaran

**'OBATU'** Irekiera ekitaldian izandako politikari guztiek egin zuten bat 'Obatu euskal eskola publikoari' leloarekin

**ARRAKASTA** Aurreikuspenak gainditu dituztela esan dute antolatzaileek

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Hezkuntzako eta politikako ordezkari ugari batu zen eskola publikoaren jaian, atzo Bergaran. Horiez gain, Euskal Herri osotik etorritako jendea (familiak ziren nagusi) eta bergararrak izan ziren protagonista nagusiak.

Goizeko irekiera ekitaldian izan ziren politikari guztiek egin zuten bat *Obatu euskal eskola publikoari* aurtengo leloarekin. Isabel Celaa Hezkuntza sailburu berriak orain arte izandako eskola publikoaren jai guztietan izan dela azpimarratu zuen. Atzo, esan bezala, ia-ia kargua estreinatzea egokitu zitzaion: "Aurten sailburu gisa nator, baina aurreko urteotan borondate berberarekin, euskal eskola publikoa indartzea, alegia". Hezkuntza sailburuak plan estrategikoa martxan jarriko dutela aurreratu zuen atzo Bergaran: "esfortzu guztiak bertara bideratuko ditugu, eskola publikoaren azpiegiturak bultzatuko ditugu eta euskararen ezagutza ere aurrera eramango dugu, euskararekiko hurbiltasuna eta lotura afektiboa indartuz; gutzi hori elkarriz-ketaren bidez". Isabel Celaaren agerraldiak sortu zuen ikusmin handiena atzo.

Aurretik, ikasle, irakasleek eta gurasoek aurreskua (kantu eta guzti) eskaini zuten San Martineko patioan eta jarraian ikasle talde batek jaiaren leloa zeramaten usoak askatu zituen, batutakoen txaloen artean.

Jaia hasita zegoen eta handik eta hemendik etorritako jendea gune ezberdinetan sakabanatzen hasi zen. Etorritakoek zortzi gune izan zituzten aukeran eta arrakastatsuena beharbada Bideberrikoa izan zen; kultura aniztasunaren gunean dantzak, musika, salmenta postuak eta jaki ezberdinekin gozatzeko aukera izan zen.

**AURREIKUSPENAK GAINDITU**

San Martin eskolako ordezkariak pozik agertu ziren jasotako erantzunarekin. Atzo oraindik goizegi zen zenbat jende etorri zen jakiteko, baina Susana Uriarte zuzendariak aurreikuspenak gainditu zituztela esan zigun jaia amaitutakoan, zortzirak aldera.

Era berean, boluntarioek emandako laguntza eskertu nahi izan zuten antolatzaileek. Gaur goizean jai eguna izango dute San Martinen. Arratsaldean, lasaiago eta egindako lanarekin konforme, lanera bueltatzeko ordua izango da.

**BERGARA** > EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

# Kultura aniztasuna nagusitu da Euskal Eskola Publikoaren jai arrakastatsuan

Haur eta nagusiendako hamaika aukera egon dira egun osoan zehar, zortzi gunetan

**E.M.** > BERGARA

Umeak ziren nagusi goizean Santa Marinako gunean. Txatxilipurdiko kideen eskutik hainbat jarduera egiteko aukera zeukaten txikienek. Geppettoren tailerrak eta henna eta arabiar idazkera tailerrak ere neska-mutiko ugari erakartzen zituzten. Musika, gaztelu puzgarriak, disko-festa, erromeriak, Oihulari Klown taldearen mamu txikiak eta beste hamaika aukera egon ziren egun osoan zehar. Jaia 20:00ak aldera amaitu zen, San Martin plazan. 200 lagundik gora izan ziren atzo jaia ondo ateratzeko laguntza eman zutenak.

Agurne Barruso alkateak positiboki baloratu zuen jaia, "giro ona izan delako; badirudi eguraldia ere aldeko dugula azkenaldian eta dena ondo atera da. Jende ugari etorri da eta poztekoa da... Etorkizunerako erronka gure eskola publiko nazionala izatea izan behar da, gaurko zatiketa administratzaileak ahalbideratzen ez duena, hain zuzen".

**TOKI ARAZOARI IRTENBIDEA**

Susana Uriarte San Martineko zuzendariak jaiaren arrakasta nabarmendu eta, bide batez, daukaten toki arazo falta azpimarratu zuen: "Behin betiko irtenbiderik gabe jarraitzen dugu oraindik eta ea handik eta hemendik iristen zaizkigun hitz onak betetzen diren...".

Datorren urteko Euskal Eskola Publikoaren jaia Araban ospatuko da. Datozen egunotan jakingo da zein herrik hartuko dion lekukoa Bergarari.



Umeak aztoratuta Kanpanolue taldearen *Atxikistan* ikuskizunarekin San Martin plazan. JOSETXO ARANTZABAL



Hezkuntza eta politika arloetako ordezkariak jaiaren inaugurazio ekitaldian. J.A.



Scratch erakustaldi ikusgarria egin zuten Munibe plazan.

## ORDEZKARI POLITIKOEN IRITZIAK



**Mikel Arana**
Ezker Batua

"Kalitatezko euskal eskola publikoaren alde egin behar dugu, eleanitza eta plurala. Ikastetxe kontzertatuen ordez, publikoaren eta doanekoaren alde egiteko apustua eskatu behar zaio Jaurlaritzari", adierazi zigun Mikel Arana EBko legebiltzarkideak.



**Rebeka Ubera**
Aralar

Elgetarra umeekin etorri zen jaiaz gozatzera; "Eskola publikoari babesa ematetik haratago jo behar dugu. Zera eskatu behar zaio Jaurlaritzari: egunerokotasunean euskalduntze prozesuan laguntzeko, eskola publikoa babesteko bitartekoak jar ditzan".



**Tontxu Campos**
EA

Hezkuntza sailburu ohiak honelako jaien garrantzia azpimarratu zuen: "Eskola publikoa hezkuntza sistemaren zutabeetako bat izan behar da. Denok nahi dugu kalitatezko sare publiko euskalduna; argi dago gizarteak babesten duen filosofia dela".



**Jose Luis Garitano**
EAJ

EAJko legebiltzarkide bergararrak ez zuen irekiera ekitaldian hutsik egin. "Gizarte osoak ikasteko, formazio egokirako aukera izan behar du. Azken 30 urteotan horren alde egin dugu, baita orain, oposizioan. Kalitatezko eskola publikoa, eraginkorra nahi dugu".




Uso mezularien erakustaldia egin zuten; ikasle bat usoa *obatzen*. J.A.



Ume eta gurasoak, bat. J.A.




Ogitartekoak ahaztu zituztenek izan zuten non aukeratu. J.A.



Arabiar idazkera tailerrean, beste kultura batzuk ezagutu zituzten. J.A.



Umeak Betizuekin jolasten. J.A.



JOSETXO ARANTZABAL



Umeak izan ziren eguneko protagonista, eta ekitaldietan gozatu zuten. J.A.


gizarte ekintza
hezkuntza

2009KO DEIALDIA
NAZIOARTEKO PROGRAMETAKO PARTAIDEENTZAKO LAGUNTZAK

Ingalaterra, Alemania, AEB, Frantzia, Kanada, Italia…

Erasmus, Sokrates edo Leonardo bezalako **nazioarteko programetan** parte hartzen dutenei **kutxa**ren **Gizarte Ekintzak** laguntza ematen die urtero. Zeinahi dela ere zuk aukeratutako herrialdea, hauxe duzu laguntzari buruzko informazioa jaso eta eskabidea egiteko unea.

**Laguntzak eskatzeko epea: 2009ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era arte.**

jakin behar duzun guztia hemen
www.gaztekutxa.net




zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net
kutxa

ARIZMENDIKO FERIXIE

# Umeak izan ziren protagonista Arizmendik hamahirugarrenez antolatutako azokan

Arizmendik antolatzen duen azoka erraldoia Eskoriatzako jai egun garrantzitsua bilakatu da

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Giro paregabea eguraldiari eta jendeari dagokionez. Hamahirugarrena zelako eta eguraldi txarra iragarrita zegoelako, arduratuta zeuden antolatzaileak, baina eguna arrakastatsua izan zen. Eta jende askok esku hartu zuen.

**80TIK GORA SALTOKI**

Kaleak saltokiz beteta: guztira, 80 baino gehiago; erditik gora artisauenak eta gainontzekoak barazki eta janariarenak; eta guztira, 16 herrikoak.

Otarrak, buztina eta bestelakoak lantzen dituzten artisauak ere egon ziren; eta esaterako, buztina lantzen ume mordoa ibili ziren buru-belarri goiz osoan. Bestalde, 187 umek 37 txorimalo egin zituzten lehiaketan.

**SARITUAK**

Honakoak sarituak izan ziren: Arane Behekua baserrikoei, Eskoriatzako baserri produktu onena; ehoziriak egin zituzten emakumeei, herriko artisautza; kanpotik etorriko saltokiarena, Ivan Garciari; eta gazta onena, Aretxabaletako Gorka Leteri.

Horrez gain, otarren zozketan honako hauek izan ziren zenbaki sarituak: lehena, 2.012 eta bigarrena, 3.859 (ordezkoa 3.892).



Sariak jaso zituzten saltokietako arduradunak eta txorimalo sarituen egileak, pozik. IKER BARANDIARAN



Jende asko gerturatu zen saltokietara, ikustera eta erostera. J.A.



Buztinarekin lanpetuta ibili ziren. J.A.



Saskiak ere egin zituzten. J.A.



Ohitura da egunean baserritar janztea. J.A.



Ikaragarri ondo pasa zuten eguna txikienek; Eriz magoa ikusten (argazkian), esaterako, adi-adi egon ziren. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE**

# Harremanen Elkartasun Eguna: zozketa, erosketa eta jolas artean, laguntza gehien behar dutenak gogoan

Harreman elkarteak antolatzen duen Elkartasun Egunak, ibarreko eta kanpoko hainbat GKE bildu zituen zapatuan.

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Jende askoren ikusmina piztu zuen zapatuan Harremanek eta beste hainbat elkartek egin zuten Elkartasun Egunaren hamaikagarren edizioak.

Aukera proiektuaren barruan, arazoak dituztenek garbitu, sailkatu eta konpondutako bigarren eskuko arropak; udan haur sahararrentzat udalekuak antolatu ahal izateko jarritako talo eta te postua; Indiako barnetegietarako dirua lortzeko Mumbain egindako bitxi eta zapien salmenta… Hainbat elkartek euren proiektuak aurkeztu zituzten Seber Altube plazan, eta orokorrean, gustura zeuden jendearen erantzunarekin.

**TONBOLA ETA ANIMAZIOA**

Indiarako dirua jasotzeko tonbolak ere laguntzaile asko izan zituen.Txartel denak saldu ziren eta Asturiasen bi eguneko egonaldia zozketatu zuten: 3.313 zenbakiari egokitu zitzaion (ordezkoa, 3.336a). Antolatzaileak pozik zeuden egunak emandakoarekin; euren esanetan, krisiaren eraginaren beldur ziren, baina ez zuten nabaritu.

Umeendako jolasak, Zaramasamba taldearen animazioa, Txan magoa… Elkartasun Egunak ez zuen aspertzeko betarik eman.



Indian dagoen Ankurreko umezurtz-etxe baterako izango da tonbolan jasotako dirua. JOSETXO ARANTZABAL



Txan magoaren emanaldia. J.A.




Arizmendi Ikastolako ikasleek, euro solidarioaren bidez batu zuten dirua. J.A.



Zaramasamba taldeak animatu zuen zapatu goiza. J.A.

**OÑATI**

# Euskal giro jatorrean ospatu dituzte auzotarrek Araotzeko Trinitate jaiak

Antolatzaileek egitarau zabala antolatu dute, eta gustura daude aurten auzoan sortu den giroarekin.

**TXOMIN MADINA** > OÑATI

Oñatiko Araotz auzoan ospatzen diren Trinitate jaiek fama handia dute herrian, eta hala, aurten ere jende asko gerturatzea lortu dute.

Mendi bizikleta irteera, Peñagarikano eta Sorozabal bertsolariek girotuta egindako auzo afaria, mus eta bolo txapelketak, herri kirolen erakustaldia… Ekitaldi asko, antolatzaileen esanetan, giro bikaina sortu zutenak.



Ehun pertsonatik gora batu ziren zapatuan egindako auzo afarian. JOSEBE ZUMALDE



Mus txapelketako irabazleak. J.Z.



Iturbide egoitzako (argazkian) nagusiendako jangelaren araudia eta bestelako gizarte laguntzak onartu zituzten. GOIENKARIA

**GIZARTE ONGIZATEA** > LARRIALDIKO ETXEBIZITZA ETA ITURBIDEKO JANGELA

# Larrialdi egoeran daudenei aldi baterako etxebizitza utziko diete

Plaza bat baino gehiago izango ditu Larrialdiko Etxebizitzak; dena den, plazarik ez bada, hotel edo ostatu bat eskainiko du Udalak

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Guztiz berritzailea den zerbitzua ematen hasiko da Arrasateko Udala: larrialdi egoeran dauden bizilagunendako etxebizitza. Egueneko osokoan onartu zituzten etxebizitza horren erabilera arautzeko baldintza, betebehar eta oro har arau guztiak. Edozelan ere, esan beharra dago zerbitzu hori ematen hasita dagoela Udala abenduaz geroztik, eta orain egin duena da hori arautu.

**SEI BALDINTZA**

Etxebizitza hori erabili ahal izango dute pertsona batek baino gehiagok batera. Jakina, Udalak zehaztutako baldintzetako bat betetzen badute.

Sei dira baldintzok: "Kalean bizitzea; pertsonen segurtasun fisiko edo emozionala arriskuan jartzen duten familia gatazka larria gertatzea; senitartekoren bat etxebizitzatik berehala ateratzea agintzen duen epaia; epai irmoz agindutako kaleratzeak (baliabiderik ez izateagatik ez ordaintzea, jabeak etxebizitza behar izatea, hondamen deklarazioak edo antzekoak); pertsonaren bizitoki den eraikina hondoa jotzeko zorian dagoela jotzea eta bestelako gizarteratze edo harrera zerbitzuren batean izan ondoren, bizitza independentea egiteko egokitze epea eta prestakuntza behar duten pertsonak izatea", azaldu dute Gizarte Sailetik.

**ERANTZUNA HILABETEKO EPEAN**

Baldintza horietakoren bat betez gero, pertsonak berak egin beharko du etxebizitza eskuratzeko eskaera udaletxean.

Bere aldetik, Udalak jasotzen dituen eskeren artean erabakitzeko orduan, lehentasunak emateko bi irizpide kontuan hartuko ditu: "Etxebizitza faltari konponbidea ematerik ba ote dagoen; eta Arrasaten erroldatuta egotea.

Hori bai, Arrasaten erroldatuta ez daudenek ere izango dute onuradun izateko eskubidea, "baldin eta Arrasaten bizi badira".

Bestalde, etxebizitzan ez bada lekurik, ostatu edo hotel batean egonaldia egitea proposa dezake Udalak, "baldin eta eskatzailea Arrasaten erroldatuta badago".

Udalak, asko jota, hilabete izango du erantzuteko eta epe horretan erantzun ez badu, eskaera ez dutelako onartu izango da.

Era berean, "beharra muturrekoa eta larria denean, Gizarte Ongizateak eskatzailea Larrialdiko Etxebizitzan berehala sartzea proposatu ahal izango du".

**ASKO JOTA, SEI HILABETE**

Etxebizitzan plaza eskuratuta, "kasuaren ezaugarriak eta harreraren beharra eragin duen egoera konpontzeko aukerak kontuan hartuko dira iraupena erabakitzeko. Nolanahi izanda ere, zerbitzuak ez du sei hilabete baino gehiago iraungo". Era berean, besteak beste, etxebizitzako bizilagunek ezingo dute kanpoko inor eraman etxe horretara, eta animaliak ere ez dituzte onartuko.

NAGUSIENDAKO JANGELA

## Iturbiden egokitu duten nagusiendako jangela erabiltzeko arauak onartu dituzte

Nagusiendako jangela zerbitzua ipini gura du Udalak Iturbide egoitzan. Labur esanda, Udalak laguntasuna eman gura die bakarrik bizi diren eta zailtasunak dituzten pertsona nagusiei, bakarrik bizitzen segitu ahal izateko. Hau da, sarri eguneroko janak prestatzeko zailtasunak dituzten nagusiek erabakitzen dute bakarrik bizitzen segitu barik, egoitza batera bizitzera joatea. Bada, nagusiendako jangela horretan pertsona nagusi horiek aukera izango dute egunero 8 eurorengatik bazkaldu eta afaltzeko. Bazkariarengatik 4,5 euro ordaindu beharko dute eta afariarengatik 3,5 euro. Horrez gainera, osokoan onartutakoaren arabera ordutegia da 13:00etan bazkaria eta 20:00etan afaria. Eta urtean 365 egunetan emango dute zerbitzua, hau da egunero. Bestalde, zerbitzu horren harira, Alternatiba-Zutik koalizioak emendakina aurkeztu zuen eskatuz jangela horrek eskaintzen duen zerbitzua egokia izan arren, osatu egin beharko litzatekeela etxez etxeko jan-zerbitzuarekin. Osokoak ez zuen proposamena onartu, Talde Mistoa, PSE-EE eta EAJren kontrako botoekin.

**AUKEA** > UDAKO KANPAINA

# Jarduera eskaintzarik ez da faltako Aukearen eskutik

8 eta 16 urte arteko gaztetxoek hainbat kirol probatzeko aukera izango dute, bi txandatan

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasateko Udaleko Kirol Erakunde Autonomoak (AUKEA) hamaika kirol jarduera eskainiko ditu ekaina eta uztaila amaiera bitartean. Gaztetxoei begira antolatu dituzten ekintzak dira, denetariko jarduerak probatzeko aukera paregabeak, hain zuzen.

Besteak beste, piraguismoa, patinajea, skatea, tenisa, eskalada edota arku tiraketa ezagutzeko aukera izango dute. Bi txandatan banatuko dira: batzuk ekaina amaieran eta uztaileko lehen astean; eta besteak, uztaileko bigarren eta hirugarren astean. Izena emateko Musakolako kiroldegiko bulegora hurbildu beharra dago, eta komeni da ekaineko azken astea baino lehen egitea. Izan ere, ikastaroa hasi baino astebete lehenagora arte eman ahalko da izena –ikastaro gehienak ekainaren 29an hasten dira–. Lehen txandan edo bigarren txandan sartu erabakiko da izenemate ordenaren arabera. Jardueren bataz besteko prezioa 25 euro ingurukoa da. Argibide gehiagorako, 943 77 16 77 telefonora deitu.

**'KIROLARI ATEAK ZABALIK EGUNA'**

Ekainaren 14an *Kirolari ateak zabalik Eguna* ospatuko da Gipuzkoan, eta Arrasate izango da jaiaren guneetako bat. Hala, Iturripen, Musakolan eta Santa Marina auzoko bolatokian denetariko hastapen ikastaroak emango dituzte, doan.



Arku tiraketa izango da kirol jarduéretako bat. GOIENKARIA

> JENDARTEA

## Kaonbi elkartea, Arrasateko katuen koloniaren ongizatea bermatu eta kontrolatzeko taldea

Katuak Ondo Bizi elkarteak (Kaonbi) martxan jarraitzen du herriko kaleetan noraezean dabiltzan katuei laguntza eskaintzen. Urte hasieran aurkeztu zuten irabazi asmorik gabe sortutako elkartea eta kaleko lanaz gain, *www.kaonbi.blogspot.com* blogaren bidez ematen dute euren jardunaren berri.

Blogean taldearen gaineko informazioa, bazkide egiteko argibideak eta katuei laguntzeko jarraibideak eskegi dituzte, besteak beste. Kaleko lanari dagokionez, Kaonbi arduratzen da katuei janaria eta ostatu emateaz eta gutxieneko osasun zerbitzua eskaintzeaz. Azken horien artean aipagarria da esterilizatu egiten dituztela, katu kopurua larregi handitu ez dadin.

> EKIN EMAKUMEAK

## Eskulan eta orratz lanen erakusketa jarriko du Ekin elkarteak ekainaren 13an Harresi aretoan

Urtean zehar egindako eskulan eta orratz lanak erakusgai jarriko ditu Ekin Emakumeak elkarteak. Ikasturte amaiera gerturatzen dela-eta, ikastaroetan parte hartu ohi dutenen artelanak ikusteko aukera izango dute arrasatear guztiek. Erakusketa ekainaren 13an zabalduko dute, 12:00etan. Gainera, Harresi aretora gerturatzen direnendako lunch ederra prestatuko dute.

Aurkezpen ekitaldiaren ostean, Harresi aretoan jarriko dituzte artelanak ikusgai ekainaren 13tik 19ra bitartean, arratsaldeko seiak eta zortziak bitartean. Antolatzaileek euren lanetaz gozatzeko gonbidapena egin gura die arrasatear guztiei.

**OSPAKIZUNA** > ERDI AROKO AZOKA

# Erdi Aroko azoka egingo du Udalak lehenengoz hilaren 20an eta 21ean

Askotariko artisau postuez gain, egongo dira ikusteko ezpata borroka, ipuin kontalariak eta hegazti ikuskizuna, besteak beste

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Ekainaren 20an eta 21ean Erdi Aroko azoka egongo da herrian. Udaleko Kultura sailak antolatu du azoka hori eta lehenengoz egingo da.

Udala saiatzen ari da ahalik eta kultura ekintza gehien eskaintzen herritarrei, askotarikoak, gainera, eta Enara Minguez Kultura zinegotziak esan duenez, Erdi Aroko azoka egitea ere "dinamika horren barruan" sartzen da.

**EUSKAL HERRIKO IKUSPEGIA**

Basque Power enpresaren bitartez antolatu dute Erdi Aroko azoka, eta Minguezek azpimarratu du "Euskal Herriko ikuspegitik antolatutako azoka" dela, eta neurri baten "Euskal Herrian zein Bergaran Erdi Aroak izandako garrantzia aldarrikatzeko modua" ere azaldu du. Hori horrela, azokan eta kontalariek Bergarako historia azalduko dute kale animazioak, besteak beste, euskal ikuspegia izango dute.

**ASKOTARIKO IKUSKIZUNAK**

Zapatuan, hilaren 20an, hasiko da feria eta 10:45ean irekiko dute, pregoi eta guzti. Erdigunean izango da eta kaleak atondu egingo dituzte Erdi Aroko kutsua har dezaten, suziri eta estandarteekin, esaterako.

Artisau postuak ere egongo dira ikusgai, eta Enara Minguez zinegotziak esan duenez, herriko eta inguruetako artisauei egin diete deialdia azokarako.

Horrekin batera, kale animazioa ere egongo da erdigunea girotzeko.

**ERAKUSTALDIAK**

Are eta Erdi Aroko kutsu handiagoa emateko, ezpata borroka erakustaldia egongo da eta baita hegazti erakusketa ere. Horrez gain, bertso paperak, musika eta istorio kontalariak egongo dira.

ESANAK

**"Euskal Herriko ikuspegitik antolatutako Erdi Aroko azoka da hilaren 20ane ta 21ean egingo dena"**

**Enara Minguez** > Kultura zinegotzia



Irudian aurreko aste bukaeran Arrasaten izandako azokako hegazti ikuskizuna. JOSETXO ARANTZABAL

## Erdi Aroko azokako egitaraua

**20, zapatua**
**10:30** Deialdia: txalapartariak.
**10:45** Pregoia eta irekiera ekitaldia.
**11:30** Erdi Aroko azoka euskal kale animazioa.
**12:00** Ezpata borroka.
**13:00** Bertso paperak.
**13:30** Istorio kontalaria.
**17:00** Ezpata borroka.
**17:30** Erdi Aroko euskal kale animazioa.
**18:30** Bertso paperak.
**19:00** Istorio kontalaria.
**20:00** Hegazti erakusketa.
**21:00** Zer ote?

**21, domeka**
**10:30** Deialdia: txalapartariak.
**11:00** Erdi Aroko azoka euskal kale animazioa.
**11:30** Istorio kontalaria.
**12:15** Ezpata borroka.
**13:00** Bertso paperak.
**13:30** Hegazti erakustaldia.
**17:00** Ezpata borroka.
**17:30** Erdi Aroko euskal kale animazioa.
**18:00** Istorio kontalaria.
**18:30** Bertso paperak.
**19:00** Hegazti erakusketa.



JOSETXO ARANTZABAL

## Mugertzako aparkalekua ia konponduta dago

Mugertza gainaren ondoan dagoen aparkalekua konpontzen dihardu Udalak. Asfaltoa bota dute dagoeneko, eta zoruan aparkalekuak margotzea eta argia jartzea baino ez da falta erabat bukatzeko. Udaletik jakinarazi dutenez 80.000 euro inguruko aurrekontua dute esandako lanok. Aparkalekua erreka ondoan dagoenez, segurtasun-hesia jarri zuen Udalak iaz. Oraingo lanekin erabat bukatuko dituzte aparkalekua txukuntzeko lanak.

## oharrak

GAZTEAK

**> Bidaiatzeko gida berriak ditu Gazte Informazio Bulegoak**

Gida horiek dira: Alemania, Brusela, Brujas, Amberes eta Gante, Egipto, Florentzia, Hungaria, Ingalaterra eta Gales, Maroco, Zeelanda Berria, Tunizia, Venezia eta Euskal Herria, 70 herri ezagutzeko. Gidak maileguan har daitezke, hamabost egunerako, doan. Maileguan hartzeko ez da inongo txartelik behar; izen-abizenak eta telefono zenbakia ematea nahikoa da.

IKASTAROAK

**> Beste 15 ikastaro emango dituzte KZgunean, ekainean**

Internet+e-Administrazioa, sinadura elektronikoa, blogger, Google tresnak, Skype, sare sozialak eta irudi digitalen tratamenduaren gaineko 15 ikastaro emango dituzte ekainean KZgunean, ekainaren 1etik aurrera. Informazio gehiagorako idatzi *tutor.bergara@kzgunea.net* helbidera edo deitu 943 76 73 24 zenbakira.

IRTEERA

**> Irteera Europako Mendietara, Pol-Pol eta Gorla Alpino mendi taldeekin**

Ekainaren 13an eta 14an egingo dute irteera hori. Irteera Fraiskozuritik egingo dute, 05:30ean. Izena emateko jo Pol-Pol Mendi Taldearen egoitzara.

MUSIKA ESKOLA

**> 'Miserableak' ikuskizuneko CDa eta DVDa eska daitezke Musika Eskolan**

Musika Eskolan egin daiteke eskaria, 15:30-19:30 ordutegian. CDaren prezioa 7 euro da (5 taldekideendako); eta DVDarena, 15 (13, taldekideentzat).

IKASTAROA

**> Adineko ezinduak zaintzeko ikastaroa antolatu du Udalak**

Ikastaroa izango da ekainaren 8tik 13ra, San Joxepen, 15:00-17:00 ordutegian. Familian adineko ezinduak dituztenendako da. Izenematea da Udaleko Ongizate sailean (943 77 91 65).




Herritar ugari bildu zen osoko bilkuran, presoen eskubideen aldeko pankartekin. MIREIA BIKUÑA

**POLITIKA** > OSOKO BILKURA

# Preso politikoen eskubideen aldeko mozioa onartu zuten

## Oñati Ezkerretik koalizioko aldeko botoekin onartu zuten mozioa; EAJ-EAko zinegotziak abstenitu egin ziren eta PPko zinegotziak kontra bozkatu zuen

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Preso politikoen eskubideen aldeko mozioa onartu egin zuten eguneko osoko bilkuran. Oñati Ezkerretik koalizioko hiru zinegotziek alde bozkatu zuten, EAJ-EA-ko zinegotziak abstenitu egin ziren, eta PPkoak kontra bozkatu zuen.

700 sinaduren bermearekin aurkeztutako mozioa hainbat herritarrek babestu zuten. Aurretik kontzentrazioa egin zuten.

**HIRU PUNTUKO MOZIOA**

Presoen eskubideen aldeko mozioak hiru puntu zituen: alde batetik, gaixotasun larriak dituzten euskal preso politikoak berehala aska ditzatela eskatzen zuten; beste alde batetik, biziarteko zigorra ezartzeko neurriak bertan behera utz ditzatela exijitzen zuten; eta azkenik, euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzatela eskatzen zuten, sakabanaketa eta bakartze politikarekin bukatzeko.

**MOZIO ALTERNATIBOA**

EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zuen. Zinegotzi guztiek alde bozkatu zuten, alderdi popularrekoak izan ezik.

Bigarren mozioak 2006ko urriaren 6an euskal presoen eskubideen defentsarako konpromisoari buruz onartutako berrestea proposatzen zuen: presoak euren familiarengandik gertuago egotea; euskal preso guztien eskubideak errespetatzea; gaixo dauden presoak askatzea; zigorraren zati handiena beteta duten presoak askatzea; espetxeei buruzko eskumenak EAEko gobernuaren esku egotea; eta giza eskubide guztiak, salbuespen barik, defendatzeko konpromisoa aldarrikatzea.




**KIROLA** > PILOTA

# Plazako pilota txapelketa abian da uztailera arte

## Partiduak jokatuko dituzte astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan, 18.30ean

**M.B.** > OÑATI

Ekaina iristearekin batera, urteroko hitzordua da plazako pilota txapelketa. Aloña Mendi pilota sailak antolatzen duen txapelketan, Debagoieneko eta Durangaldeko elkarteek parte hartzen dute. Guztira, Arabako, Bizkaiako, Nafarroako eta Gipuzkoako 48 bikote lehiatuko dira irabazlearen txapela jantzeko; hain zuzen, 23, kadete mailan eta 25, gazte mailan.

Plazako txapelketako partiduak, martitzenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan 18:30ean jokatuko dituzte estali bariko pilotalekuan; eta finala, uztailaren 30ean jokatuko dute. Eguraldi txarra egiten duenean, norgehiagokak kiroldegiko frontoian jokatuko dituzte.

**ESTALI GABEKO FRONTOIAK**

Estali gabeko pilotalekuan jokatzen den txapelketak, urtero, pilotari mordoa biltzen du. Aloña Mendik antolatzen duen txapelketak bi helburu nagusi ditu: alde batetik, kadete eta gazte mailetako pilotarien denboraldia luzatzea, eta beste alde batetik, estali gabeko pilotalekuek garai batean izan zuten garrantzia berreskuratzea. Partidu gutxi jokatzen dira estali bariko frontoietan; izan ere, halako gune gutxi dago-eta. Oñatiko txapelketak 19. ekitaldia bete du dagoeneko aurten.

Oñatiko txapelketan kadete eta gazte mailetako pilotaririk garrantzitsuenek parte hartzen dute.

> ERAKUSKETA

### Jorge Oteizaren gaineko erakusketa ibiltaria ikusgai dago kultura etxean, hilaren 21era arte

Gipuzkoako hainbat herritatik pasa ostean Oñatira heldu da Jorge Oteizaren gaineko erakusketa ibiltaria. *Oteiza: bizirako proiektua* delako erakusketa ikusgai dago kultura etxean hilaren 21era arte, astelehenetik egubakoitzera 18:30etik 20:30era.

Oteiza eta haren artea hobeto ezagutzeko erakusketak bost bloke ditu. Lehenak biografia du hizpide; bloke horretan Oteizaren bizitza kontatzen da, testu eta irudiekin. Bigarrenak atal bibliografikoak, Oteizaren ahalmen sortzailea islatzen du. Horretarako artistaren argitalpenak erakusten dira. Gizarte eta kultura ekintza arloak, bestalde, Oteizaren gizarte proiektu eta egitasmo pedagogikoak azaltzen ditu. Gainera, kultura ekintza eta sorkuntzaren garrantzia azpimarratzen dute.

Laugarren atalean hizkuntza da protagonista. Azkenik, erakusketako atal nagusiak Oteizaren obra azaltzen du, haren bilakaera aztertuz. Horretarako, artistaren eskultura lanen irudiak erabiltzen dituzte.




ALOÑA MENDI

### Aloñako infantil mailakoak Frantzian

Aloña Mendiko infantil mailako futbol taldeak Merpins-eko (Frantzia) futbol txapelketan parte hartu du. Hainbat herrialdetako 16 talde lehiatu ziren eta oñatiarrak laugarren tokian sailkatu ziren, kontsolazio finala galdu ondoren. Merpins-en egondako jokalariak eta gurasoak oso pozik itzuli dira. Aste bukaeran, txapelketa jokatzeaz gain, cognac-a egiten duen enpresa bat bisitatu zuten, eta Cognac eta Tours futbol taldeen arteko lehia ikusi zuten, besteak beste.

**ARETXABALETA-ESKORIATZA** > GAZTEAK

# Gazteendako ekimenez josita dator aurtengo Udaero programa

Izena eman gura dutenek ekainaren 30a baino lehen egin beharko dute

**M.B.** > ARETXABALETA-ESKORIATZA

Aurten ere Udaero programaz gozatu ahalko dute Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteek. Betiko moduan, uztailerako askotariko ekimenak prestatu dituzte bi herri horietako gaztelekuek. Gogorarazi dute hainbat ekintzetarako aurretik izena eman behar dela. Apuntatzeko epea ekainaren 30ean amaituko da.

Ekimenak uztailaren 6an hasiko dira; surf ikastaroa izango dute Zarautzen. Autobusean joango dira eta hango surf eskolakoekin hiru orduko ikastaroa jasoko dute taldeka. Jarraian, etxetik eramandako ogitartekoa bazkalduko dute hondartzan.Irteera honen truke 15 euro ordaindu behar da.

**USAKORA BIZIKLETAN**

Uztailaren 8an Usakora joango dira. Gazteak 11:00ak aldera elkartuko dira eta bizikletan haraino joango dira. Bi bide izango dituzte aukeran: Urkulutik edo Elorregitik. Bainua hartu eta bazkaldu ere han egingo dute.

Hurrengo egunean Gamarrako igerilekuetan eguna pasako dute. Irteera arrakastatsu horretan parte hartu gura dutenek bost euro ordaindu behar dituzte. Hurrengo hitzordua uztailaren 13rako egin dute. Egun horretan Landara joango dira eta han *Urbolei* txapelketa egingo dute, besteak beste. Uztailaren 15ean Araban pasako dute berriro eguna. Eskaladaren gaineko oinarrizko ikastaro laburra jasoko dute Eginon. Bi irteera horiek ere bost euro balioko dute.

Uztailaren 16rako, afari-merienda eta kontzertuak antolatu dituzte. Udaeroko irteera luzearen aurretik egingo duten azken ekintza izango da hori.

**IRTEERA KOSTALDERA**

Udaero behar bezala amaitzeko, kostaldera irteera egingo dute uztailaren 21etik 24ra bitartean. Han ekintza bereziak egiteko aukera izango dute; hala nola, askotariko kirolak, gaubelak edo hondartzan egotea. Kanpinean egingo dutela. Irteera horren prezioa 45 eurokoa da.

Udaero programaren antolatzaileek ohartarazi dute plaza mugatuak dituzten ekintzetan izena eman behar dela; gainerakoetan parte hartzeko aipatutako ordu eta lekuan agertzearekin, nahiko. Gaineratu dute ekintza guztietan parte hartzeagatik 65 euro ordaindu beharko direla.

**IZENEMATEA**

Izenemate orriari dagokionez, gaztelekuetan edo Gazteria Zerbitzuetan dauden orriak bete eta han bertan aurkeztu beharko dute. Izena astean zehar eman gura dutenek Gazteria zerbitzuetara jo beharko dute. Eskoriatzan, martitzenetan eta eguenetan kultura etxean eskaintzen dute; eta Aretxabaletan, astelehenetan eta eguaztenetan, gaztelekuan. Bietan honako ordutegia dute: 09:30etik 13:30era eta 14:30etik 16:00etara. Aste bukaeretan gaztelekuetan bakarrik egongo da izena emateko aukera.

Informazio gehiago nahi dutenek Eskoriatzako edo Aretxabaletako Gazteria zerbitzuetara - 943 71 46 88 eta 943 08 10 01, hurrenez hurren- edo Txatxilipurdira - 943 7954 46 - dei dezakete.

**ARETXABALETA** > ERRETIRATUAK

# Lizarratik bueltan Bizkaira doaz Basotxoko erretiratuak

Elorrio, Ziortza, Arretxinaga eta beste hainbat inguru ezagutzera joateko asmoa daukate ekainaren 15ean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Geratu barik dabiltza Basotxo erretiratuen elkarteko kideak udaberri honetan. Apirilean Portugalen izan ziren astebete, joan den astean Nafarroa aldera egin zuten egunpasa, eta orduko giro onak animatuta Bizkaia aldera joango dira ekainean. Autobus bakarra antolatzen dute, baina beteta joaten da gehienetan.

**IZENEMATEA, DATORREN ASTEAN**

Oso gustura itzuli ziren erretiratuak Nafarroatik joan den astean. Eguenetan Lizarran izaten den azoka entzutetsua ikusteko aukera izan zuten eta herriko eraikinik garrantzitsuenak bisitatu. Arronizen oliba olioa zelan egiten duten ikasi zuten eta Los Arcos herriko eliza barrokoa ikusi.

Orduan izandako giro onak beste irteera bat antolatzera animatu ditu Basotxoko zuzendaritzako kideak. Oraingoan Bizkaia aldean egingo dute egunpasa: Elorrio, Ziortzako monastegia, San Migel Arretxinaga ermita eta beste hainbat inguru ikusiko dituzte. Izena aurrez eman behar dute interesatuek datorren martitzen eta eguaztenean, ekainak 9 eta 10, egoitzan (11:00-12:00).

**ZAINTZEN GAINEKO BERBALDIA**

Irteerak bakarrik ez, berbaldia ere antolatu du Basotxok ekainerako. *Zaintzailearen zaintzak* izango da gaia eta nagusien zein gaixoen ardura dutenek zelako zaintzak eskaini behar dizkieten azalduko dute. Ekainaren 16an da, martitzena, Basotxon (17:00).



Erretiratuak bazkaltzen Nafarroara egindako irteeran. BASOTXO

**ESKORIATZA** > ELKARTASUNA

# Aste Zapatista egingo dute gaurtik zapatura bitartean

Berbaldiak, dokumentala, jardunaldiak eta astea behar bezala amaitzeko, jaialdia antolatu dute

**M.B.** > ESKORIATZA

Gaurtik zapatura arteanVI. Aste Zapatista egingo du Plataforma Zapatistak Eskoriatzan. Gaur oinarrizko errentaren gaineko berbaldi interesgarria dago kultura etxean, 19:00etan, Colectivo Berriotxoak eskainita.

Biharko, martitzena, zaharren egoitzan egin dute hitzordua. 16:30ean *Fondos revolventes* izeneko dokumentala botako dute; eta jarraian, *Yurre*k horren gaineko azalpenak emango ditu. Eguaztenean Mugarik Gabeko Albaitariak elkarteko kide Arrate Corresek *La vuelta al mundo en una nevera* jardunaldia eskainiko du kultura etxean, 19:00etan.

Eguenean, hilak 11, bigarren jardunaldi bat egongo da toki eta ordu berean. Kasu horretan kontsumo taldeen gainekoa izango da. Hurrengo egunean *Elikagaien subiranotasuna eta merkataritza askerako ituna Ugandarekin* hitzaldiaren txanda izango da kultura etxean, 19:00etan. Berbaldia gazteleraz izango da, eta Mugarik Gabeko Albaitariak emango du.

**BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI**

Aste Zapatistari agur berezia emateko, jaialdia antolatu dute zapaturako, ekainak 13. Askotariko ekimenak gertatu dituzte egun horretarako; tartean, herri bazkaria plazan. Janari mexikarra dastatu ahalko dute horretara joaten direnek. Txartelak dagoeneko salgai daude herriko Naira, Aldatz, Inkernu, Cipris eta Alkazar tabernetan. Txartelak hamabost euro balio du.

**BARKAMENA ETA ESKAERA**

Bestalde, Plataforma Zapatistak barkamena eskatu du, Mundumiraren harira. Taldeak eskoriatzar batzuen kexa jaso du, egun horretan jarritako musikaren bolumenagatik. Horren harira, "barkamenik zintzoenak" eskatu dute.

Gogorarazi dute mugimendu zapatistari laguntzen saiatzen den lagun taldea dela eta hango produktuak salduta lortzen dituzten irabaziak hara bidaltzen dituztela. Hortaz, ahalik eta gehien ateratzeko, jaialdi horiek aprobetxatzen dituztela diote.

Salatu du, baina, Mundumiran, Gobernuz Kanpoko Elkarteak jai gunetik nahiko aparte jarri zituztela; eta hortaz, ahalegin berezia egin behar izan zutela arreta bereganatzeko. Horren harira, antolatzaileei eskatu diete horrelako gauzak kontuan har ditzatela, datozen urteotarako.

IRIARTE
Umeen denda • Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

**Juan Gabiri** > Fiareko garapenerako zuzendaria

# "Banka etikoa ez da inoiz beste banketxeen arerioa izango"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

**Eguenean, ekainaren 11n, banka etikoaren gaineko hitzaldia egingo du Fiare Fundazioko Juan Gabirik Olaranen 19:00etan. Zer den jakin nahi duenak hari entzuteko aukera izan arren azaltzeko eskatu diogu hitzaldiaren aurretik.**



Juan Gabiri Fiareko bulegoan. FIARE

**Zer da Fiare?**

Inbertsio eta aurrezki erantzulerako beste erakundeek osatutako fundazioa da. Ez du dirua irabazteko asmorik eta ez dira onartzen alderdi politikoak eta enpresak. Gehienak dira gobernuz kanpoko erakundeak, bazterkeriaren aurkakoak… Fiareren sorrerako helburua zen ikerketa bat egitea eta topatzea modu berriak jendearen aurrezkiak kudeatzeko; dirua bideratzeko gizartearen onerako proiektuetara.

**Eta banka etikoa?**

Banketxe batean dirua uztean banketxeak dirua kudeatzen du eta trukean etekina eman; baina askotan ez da jakiten dirua zertan inbertitzen den. Askotan enteratzen da bezeroa dirua erabili dela berak nahi ez lukeen gauzetan. Hortaz, Fiareren helburua zen ikustea Europan zer egiten zen beste bide batzuk eskaintzeko jendeari. Norbaitek dirua ipintzen duenean eskubide osoa du jakiteko diru horrekin zer pasatzen den. Gainera, balore batzuk izanez gero, dirua inbertitzeko balore horiekin sortzen diren proiektuetan; hegoaldeko arazoei aurre egiteko, bidezko merkataritzan... hori da banka etikoa.

**Gurean indarrean dago?**

Asmoa leku guztietan dago, baina krisia dela-eta jendeari ideia polita iruditu arren, hor sartzeak ez duela merezi uste dute.

**"Banka etikoak dirua bideratzen du gizartearen onerako proiektuetara"**

**"Krisiaren eraginez gero eta jende gehiago dago prest horrelako proiektu batean parte hartzeko"**

Azken urteetan gertatutakoa eta banketxeek sisteman duten eragina ikusita, sistema hori nahi ez dugun bidetik badoa beste mota bateko banketxeak behar ditugu. Hortaz, gero eta jende gehiago dago prest horrelako proiektu batean parte hartzeko. Iaz %50eko hazkundea izan genuen.

**Aurrerantzean toki zabalagoa hartuko du banka etikoak?**

Momentuz sinbolikoa da. 17.000.000 euro kudeatzen ditugu eta Espainiako Estatuan sisteman daude 1,2 bilioi euro; hortaz, ez gara inoiz ezagunak izango ezta beste banketxeen arerioak ere. Oraingoz banketxe etiko batean ez da posible, esaterako, txekeak eskatzea. Bost urteko epean lurralde historiko bakoitzean baliteke bulego bat izatea eta 100.000.000 euro kudeatzera pasatzea.

**Non dituzue bulegoak?**

Bulego finkoak Bartzelonan eta Bilbon; eta egun baterako bulegoak Gasteizen, Iruñean, Irunen eta Donostian. Asmoa da jendeak interesa azaldu ahala, gehiago izatea.

**ELGETA** > UDALEKUAK

# Zabalik da uztaileko udaleku irekietan izena emateko epea

Aurten 2-16 urte bitarteko gazteei zuzendutakoak izango dira, adin bakoitzari egokitutako programa eta taldeekin

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Uztaila bertan dugu eta Udala hasita dago urteroko udaleku irekiak prestatzen. "Gure helburu nagusia urtetik urtera eskaintza hobetzea da eta horretan dihardugu", adierazi du Rebeka Ubera zinegotziak. "Hezkuntza-aisialdi proiektua lantzen dihardugu ahalik eta kalitate handiena bermatzeko".

Aurten uztaileko udalekuak bi urtetik hasi eta 16 urte arteko ume eta gazteei eskainitako zerbitzua izango da. "Adin bakoitzari egokitutako programa eta taldeak egingo ditugu", azaldu du Uberak, "eta aisialdiko ekintzak kirolarekin tartekatuko ditugu. Horretarako Udalak hezitzaile gehiago kontratatuko ditu, hiru zehatz esanda.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Gaur, ekainak 8, zabaldu dute izena emateko epea. Uda aisialdiak hiru asteko iraupena izango du; uztailaren 6tik 24ra arte. Interesa dutenendako informazio bilera egingo dute eguaztenean, hilak 10, udaletxean 18:30ean. Kuota garestiena 90 euroko da.



Sanferminetako entzierroa udalekuetako klasikoa da. GOIENKARIA

**ARAMAIO** > EKONOMIA

# Arabako Biltzar Nagusiek onartu dute herri arabarrek ez dutela dirurik itzuli beharko

Toki Erakundeen Finantzazio Foru Fondoaren %95 jasoko dute udalek, baina ez dute dirurik itzuli beharrik izango

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Krisi ekonomikoa dela-eta udalek pasa den urtean diputazioetatik (Toki Erakundeen Finantziazio Fondotik) jasotako dirulaguntzen zati bat itzuli egin behar izan dute aurten. Arabako udalen kasuan, jasotako diruaren %5 itzuli behar izan dute. Aramaioko Udalak, esate baterako, 131.000 euro inguru itzuli behar izan ditu. Dirua itzultzeaz gain, bestetik, Diputaziotik iragarri zuten 2009an dirulaguntzak ere murriztu egingo zirela. Hasiera batean adierazi zuten laguntzen %100 eman beharrean, %95 emango zutela, baina era berean azaldu zuten balitekeela laguntzak gehiago jaistea.

**%95 BERMATUTA**

Arabako Foru Aldundiak joan den astean publiko egindako prentsa ohar baten arabera, badirudi azkenean ere %95ean mantenduko dela udalei emango dien dirulaguntza. Gainera, datozen urteetarako bermatuta geratuko da udalek ez diotela Arabako Aldundiari dirurik bueltatu beharko. Diputazioak publiko egindako prentsa oharrak honakoa dio: "Diru-bilketak izandako beherakada dela-eta, Arabako herriek dirua itzuli behar ez izatea lortu du Aldundiak. Gainera, urtetik urtera Toki Erakundeen Finantzazio Fondoaren %95 bermatuko zaie".

Aramaioko Udalarekin harremanetan ipinita, azaldu digute oraindik ez dutela Foru Aldunditik onartutako neurri berri horren gaineko jakinarazpenik jaso.

**LEINTZ GATZAGA** > IKASTAROA

# Enplegu Tailerrean gatzagar batendako dago lekua

Tailerra urrian hasiko dute, baina izena emateko epea hil honetan bukatuko da

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Debagoieneko Mankomunitateak, INEMen laguntzarekin, Enplegu Tailerra jarriko du abian urriren 1ean. 32 lagunendako dute lekua, eta izena emateko epea hil honetan bukatuko da. Arrasateko INEMen bulegoan egin behar dute.

**FORMAZIO KONTRATUAREKIN**

Enplegu Tailerra formazioa eta lana bateratzen dituen egitasmoa da. 25 urtetik gora duten langabeei zuzendua dago eta helburua da langabe horiek lanbide konkretu batean formatzea, lana eta formazioa uztartuta. 12 hilabeteko tailerra da eta hiru espezialitate izango dituzte: sukaldaritza, eraikinen eta hiri-altzarien mantenua eta eguzki-energia sistemen instalakuntza eta mantenua.

Tailerrak irauten duen bitartean formazio-kontratu bat izango dute ikasle horiek eta soldata jasoko dute hilero. Hala bada, formazioa eta lana bateratuko dituzte zortzi orduko lan-jardunean.

**GATZAGAR BAKARRA**

Debagoieneko herri bakoitzari ikasle kopuru bat dagokio –biztanle kopuruaren arabera zehaztuta–; Gatzagari bakarra. Eta Udalak 2.200 euro jarriko ditu. Gatzagarrik aurkeztuko ez balitz, beste herri batekoari utziko lioke lekua, 32 plazak betetzeko. Uztailean hautaketa frogak egingo dituzte izena emandakoen artean.



**> PILOTA**
Bergara Herri Arteko Txapelketako finalera sailkatu da 32 urte igaro eta gero **> 26**



**> CROSS COUNTRY**
Juniorretan Andoni Arenaza lehena, eta seniorretan Iñigo Errasti bosgarren **> 24**



**> IMANOL CARMONA**
UDA-Orly areto futbol taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi eta kategoriaz igo du; azken partiduetan Carmonak gol erabakigarriak egin zituen **> 27**



Arrasateko mutilen taldea txapeldun izan zen ordiziaren kontra neurtu zituen indarrak. JOSETXO ARANZABAL



Parte hartu zuten taldeetako ordezkariak jasotako oroigarriekin. J.A.



Plazan jarritako karpa txiki geratu zen garagardo festarako. J.A.

**ARRASATE** > ERRUGBIA

# Ordizia eta La Unica nagusitu ziren zazpinako errugbi txapelketetan

**JAUN ETA JABE**
Ordiziako taldeak jokatutako norgehiagoka guztiak irabazi zituen

**ETXEKOEK EZIN**
Arrasateko mutilak bederatzigarrenak izan ziren; neskak, aldiz, hirugarrenak

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Hamasei taldek hartu zuten parte zapatuan jokoan egon zen Arrasateko Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketan: mutiletan 12 taldek; nesketan, lauk.

Mojategin jokatu ziren partiduak, eta indarra izan zen nagusi alde guztietan: zeruan, bota zuen ekaitzaren indarra; eta zelaian, jokalariena. Bertaratu zirenek ikuskizun apartaz gozatzeko aukera izan zuten.

**MUTILETAN, ORDIZIA**

Mutilen kasuan, hainbeste talde izanda, launako hiru multzotan banatu zituzten.

Arrasateri ez zitzaion talde erraza egokitu: Hernani, Mungiako Kakarraldo eta Ordizia izan zituen lehiakide lehen fasean. Hala, dragoiek jokatutako hiru partidetatik bakarra irabazi zuten, Hernaniren kontrakoa hain zuzen ere, eta ez zuten lortu finalerdietara pasatzerik.

Lehenengo fasearen ostean, Bordeleko B.E.C.-ek, Donostiako Bera-Berak,Ordiziak eta Eibarrek lortu zuten finalerdietarako txartela. Donostiarrek frantziarrak mendean hartu zituzten 07-19, eta goierritarrek eibartarrak, 14-05.

Finala beraz, Ordiziaren eta Bera-Beraren artean egon zen. Azkenean, ordiziarrek euren kasta erakutsi, eta 14-12 gailendu zitzaizkien donostiarrei.

**NESKETAN, LA UNICA**

Bigarren urtez, nesken txapelketa ere egon da jokoan aurten, eta kasu honetan, Iruñako La Unicako neskentzat izan zen garaipena. Arrasateko neskak hirugarren sailkatu ziren, jokatutako hiru partidetatik bakarra irabazi eta gero.

**SARIKETA, GARAGARDO AZOKAN**

Garagardo Azokako karpan egin zuten sari banaketa, eta txapeldunez gain, talde parte-hartzaile bakoitzak oroigarri bana eraman zuen.

Jokalarien lana ere azpimarratu gura izan zuten antolatzaileek. Hala, nesketan La Unicako Agurtzane Orbegozo eta mutiletan Ordiziako Mateo Mattaruco izendatu zituzten txapelketako jokalari onenak. Arrasatearrei dagokienez, Ander Heriz eta Irati Gallastegik sari bana jaso zuten denboraldian zehar egindako lanagatik.

Eta behin protokoloa beteta, jaiak garagardo eta oilasko artean jarraitu zuen.

**Ramon Barrutia** > ARTko presidentea

## "Maila ona egon da txapelketan, taldeak jokalari onekin etorri dira"

**T.M.** > ARRASATE

**Arratsaldean txapelketan epaile moduan, eta gauean garagardo festan zerbitzari lanetan, Arrasate Errugbi Taldeko presidentea gustura zegoen txapelketak emandakoarekin.**



T.M.

**Zer moduz ikusi duzu aurtengo txapelketa?**

Oso ondo. Esandako talde guztiak etorri dira, maila ona egon da gainera: denboraldia bukatuta egon arren, taldeak jokalari onekin etorri dira, eta ikuskizun polita eman dute.

**Arrasateko taldeak ez dira aurrean ibili...**

Neskek eta mutilek lan handia egin dute, bai zelaian, eta baita garagardo jaian ere, eta hori eskertzekoa da.

**Garagardo jaian zelan joan da?**

Jende asko ibili da. Pena da eguraldi txarra egin izana: lekua mugatua da eta berehala betetzen da. Baina ondo: jada ohitura bihurtu da.


Gaizka Segurolaren BMW 325i autoa, Gorlako igoerako lehenengo txandan (03:32:56), ikusle eta telebista kamerek jarraituta.

**AUTO LASTERKETAK** > GORLAKO IGOERA

# Errepidea uste baino lehorrago zegoela aprobetxatuz, Iñigo Martinez azkarrena

Pilotuek lanak izan zituzten lehorreko edo bustiko gurpilekin korritzea erabakitzeko.

Zabaletak ez zuen asmatu erabaki horretan, eta bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Iazko hutsunearen ondoren, Bergara Racing taldeak antolatutako Gorlako auto igoerak zale asko batu zituen zapatuan ibilbideak dituen ia bost kilometrotan. Debagoieneko zaleek, baina, ezin izan zuten Aitor Zabaletaren beste garaipen bat ospatu, baina bai haren itzulera. Oraindik ere Lola Diamante autoak aparteko ikusmina sortzen du, eta bi urte lasterketetatik kanpo egonda ere, etxeko proban Zabaleta ezin da begira geratu. Zapatuan hura izan zen entrenamenduetan eta lehenengo txandan azkarrena (02:52:91), baina bigarren txanda hasi aurretik euri apur bat bota zuen, eta bergararrak gurpilak aldatzea erabaki zuen; eta ez zuen asmatu. Izan ere, Gorlako goiko aldean errepidea lehor samar zegoen, eta egoera horretan bustiko gurpilek jai dute.

Baldintza horietan *errazagoa* da CM barketa bat gidatzea, eta lehian zebiltzan seiren artean, Iñigo Martinez izan zen azkarrena (02:58:70).

**EGURALDIA, PROTAGONISTA**

Eguraldiak goitik behera baldintzatu zuen zapatuko proba. Entrenamendu saioan errepidea erabat lehor zegoen, baina lehenengo txanda hasi eta gutxira euria hasi zen. Horrek burukomin bat baino gehiago eragin zuen boxetan, eta denek ez zuten asmatu azken unean hartu beharreko erabakietan.

Hala, lehenengo sailkatuekin batera aipatzekoa izan zen Ruben Nogueira (Silver Car S-2) oñatiarrak lortutako bosgarren postua. Eta baita junior kategorian Markel Agirrek (Citroen Saxo VTS) lortutako bigarren postua ere, gainera, berea ez zen autoarekin. Bergarakoa pozik zen proba amaieran, eta iaz hil zen Igor Lete lagunari eskaini gura izan zion zapatuko lasterketa.

Igor Orobengoa (Seat Ibiza TDI) arrasatearra ere pozik zen, eta bazuen motiborik. Harena baino auto azkarragoen artean gailentzea lortu zuelako, laugarren mailan (03:16:18). David Ardions oñatiarrak proba amaieran onartu zuen azken txandan denbora ona egitera baino ikuskizuna ematera joan zela, eta lortu zuen Clio Sport autoarekin.

Eta, benetako ikuskizuna eman zuena Mikel Otxoa aretxabaletarra izan zen, BMW Touring beltzarekin. Debut ezin hobea egin zuen, atzeko trakziodun autoa batera eta bestera ibili zuen, denen gozamenerako.

**Aitor Zabaleta** > Pilotua

## "Ez dugu gurpilak aukeratzerakoan asmatu"

**X.U.** > BERGARA

**Aitor Zabaletak bi urtez izan du Lola Diamante autoa garajean gordeta. Zapatuan, proba irabazi ez bazuen ere, Bergarakoa gustura geratu zen egindako lanarekin eta autoaren erantzunarekin.**

**Igarri egingo da aspaldian korritu ez izana.**

Duda barik, bai. Beno, ahalegin guztiak egin ditut, eta entrenamenduetan eta lehenengo txandan aurrean ibili naiz. Egia esanda, lehenengo txandan egin dugun denbora txukuna ikusita, euria hasi dela ikusitakoan pentsatu dut inork ez zuela marka hori hobetuko, baina ez dugu asmatu. Bigarren txandan ere bustiko gurpilekin irten dugu, baina gu hasi garenerako goialdean nahiko lehor zegoen, eta ahaleginak egin arren, horrelako gurpilekin lehorrean ezinezkoa da ezer egitea.

**Lehorreko gurpilak berriak zenituen, baina bustikoak bereziki, ez.**

Bai, bustiko gurpilak 1997koak dira [barre]. Baina, lehorrekoekin irtenda kolpe bat hartzeko arrisku handiagoa zegoen, eta bustikoekin irten gara.

**Etxean korritzea berezia da.**

Bai, bai. Azkenean, guk antolatzen dugun lasterketa da, lagun artean egiten dugun gauza bat da eta berezia da bai. Gainera, ez da inongo istripurik izan; hortaz, dena ondo. Autoak nahi badu, datorren urtean ere izango gara.


X.U.



XABIER URTZELAI

DATUA

# 3

**SEGUNDO**

Iñigo Martinezek erakutsi zuen oso azkarra dela Silver Car autoarekin; Vilariño Motorsport taldeko gizona Zabaleta baino 3 segundo azkarragoa izan zen.

# 8

**DEBAGOIENDAR**

Egubakoitzean, *Goienkaria*-n jarritako zenbatekoa zuzendu behar dugu, Mikel Otxoa aretxabaletarrak debuta egin zuelako.

# 1997.

**URTEKO GURPILAK**

Bat Formulan gurpilak ze erraz aldatzen dituzten ikusita, Zabaletak erabili zituen bustiko gurpilak 1997koak zirela onartu zigun. Zelako meritua duen...



David Ardions pilotua Oñatiko koadrilakoekin batera, proba hasi aurretik. X.U.




Ruben Nogueiras eta bere Silver Car S-2 bosgarren sailkatu ziren. X.U.




Zabaleta Lola Diamante autoan, Gorlatik jaisten, txanda amaituta. X.U.

## sailkapena

| | |
|---|---|
| 1.-Iñigo Martinez | 02:48:70 |
| 2.-Aitor Zabaleta (Berg.) | 02:51:80 |
| 3.-Aritz Egozkue | 02:55:08 |
| 4.-Juan Carlos San Mart. | 02:55:89 |
| 5.-Ruben Nogueiras (Oñati) | 02:59:46 |
| 6.-Julio Fernandez | 03:03:09 |
| 7.-Iñigo Alustiza | 03:04:53 |
| 8.-Aitor Erro | 03:04:54 |
| 9.-Aitor Arrieta | 03:06:80 |
| 10.-Alexander Bengoetx. | 03:07:45 |
| 11.-David Ardions (Oñati) | 03:08:59 |
| 12.-Iñaki Alberdi | 03:09:14 |
| 13.-Markel Agirre (Berg.) | 03:10:08 |
| 14.-Joseba Gartzia | 03:11:03 |
| 15.-David Pelaez | 03:11:86 |
| 16.-Jose Antonio Insa. | 03:13:92 |
| 17.-Igor Orobengoa (Arras.) | 03:16:18 |
| 18.-Josetxo Duperou | 03:16:21 |
| 19.-Rafael Diaz | 03:17:34 |
| 21.-Jesus Mari De. | 03:18:55 |
| 22.-Roberto Gomez (Berg.) | 03:18:85 |
| 23.-Pantxo Egozkue | 03:19:07 |
| 24.-Emilio Huerta | 03:20:92 |
| 25.-Ibai Zarraga | 03:21:32 |
| 26.-Mario Perez | 03:23:40 |
| 27.-Iñaki Racamonde | 03:26:57 |
| 28.-Mikel Cano | 03:27:13 |
| 29.-Aitor Ramirez (Oñati) | 03:28:48 |
| 30.-David Mateos | 03:28:70 |
| 31.-Javier Mur | 03:28:86 |
| 32.-Mikel Otxoa (Aretxab.) | 03:28:97 |
| 33.-Jesus M. Fernand. | 03:29:15 |
| 34.-Borja Ramirez | 03:29:24 |
| 35.-Jose Ignacio Viso | 03:29:78 |
| 36.-Cristian Perez | 03:29:79 |
| 37.-Josetxo Gezuraga | 03:30:94 |
| 38.-Gaizka Segurola | 03:32:56 |
| 39.-Alfonso Garate | 03:33:92 |
| 41.-Asier Ugarte | 03:34:63 |
| 42.-Mikel Macias | 03:34:94 |
| 43.-Itziar Alonso | 03:36:41 |
| 44.-Iker Bilbao | 03:37:53 |
| 45.-Oliver Lopez | 03:44:67 |
| 46.- Jose M. Ubieta | 03:49:76 |
| 47.-Esteban Galarza (Berg.) | Erretiratuta. |
| 48.-Ander Urdanpilleta | Erretiratuta |

GUREKO PILOTUAK



**Igor Orobengoa**
Arrasate

## "Oso pozik geratu gara berez gure autoa baino azkarragoak direnak atzean utzi ditugulako"

Lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago Orobengoak autoaren zentralitarekin arazoak izan zituen, eta azken unean lortu zuten arazoa konpontzea: "Arazoren bat tarteko uneren batean autoa ez da topera joan, baina hala ere oso denbora ona egin dugu, eta oso pozik geratu naiz". Iker Orobengoa anaia ibili zen mekaniko lanetan, eta egindako lanaz ondo oroitu zen Igor: "Anaiarendako aipamena, laguntza ederra eman didalako, eta lasterketa on hau familiakori eskaini gura diet".



**Roberto Gomez**
Bergara

## "Etxeko lasterketan uste izaten dugu ondo ibiliko garela, baina urduritasunak azaltzen dira gero"

"Beti pentsatu izaten dugu etxeko lasterketan azkarrago ibiliko garela, baina eguna iristen denean urduri samar ibiltzen gara, etxekoak eta lagunak animatzen ibiltzen direlako". Gomezek onartu zuen lasterketako hirugarren txandan ez zutela hartutako erabakiarekin asmatu: "Entrenamenduak eta lehenengo txanda lehorreko gurpilekin egin ditugu, eta azken txandan erabaki dugu gurpilak aldatzea. Uste dut ez dugula asmatu, baina ikuskizun apur bat eman dugu".




**Markel Agirre**
Bergara

## "Aspaldian kopilotu moduan nabil, eta etxean korritzea sekulakoa izan da; eskerrik asko autoa utzi didan lagunari"

Markel Agirrek onartu moduan, urte osoa zeraman Gorlako igoeraren zain, aspaldian kopilotu moduan dabilelako, eta zapatuan Saxoaren bolantean izan zelako: "Eskerrak eman nahi dizkiot autoa utzi didan lagunari, eta ikus dezala autoa osorik entregatzen diodala. Emaitza aldetik ez dugu gauza handirik egin, baina etxeko zaleen aurrean korritzea sekulakoa izan da. Pena, iaz hil zen Igor Leteri esan niolako lasterketa hau irabazi eta eskaini egingo niola, baina kopa lortu gabe ere, gogoan izan dut laguna".

**CROSS COUNTRY-A** > EUSKADIKO TXAPELKETAKO BOSGARREN PROBA BERGARAN

# Borja Nieto azkarrena, Bergarako lehenengo cross country proban

Trofeo sariko senior kategorian Iñigo Errasti bergararra bosgarren sailkatu zen

Trofeo sariko junior mailan, berriz, Andoni Arenaza izan zen pilotu azkarrena

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Gipuzkoako Motoklub elkarteak eta Bergarako motozale koadrila batek lortu dute lehenengoz Euskadiko Txapelketarako baliagarria den cross country lasterketa Bergarara ekartzea. Eta, esperientzia arrakastatsua izan da, 72 pilotu izan ziren-eta domekako lasterketan.

**EURIAREN BELDUR**

Antolatzaileak domeka goizeko lehenengo orduan arduratuta azaldu ziren zirkuitura, zapatuan botatako zaparradak zirkuitua zenbateraino lokaztu zuen jakiteko gogoz: "Mendi inguruko zirkuitu zatia txikitu egin dugu eta beldur ginen motzegia geratuko ez ote zen, baina ez, jendeari asko gustatu zaio zirkuitua", adierazi zigun Haritz Mendizabal donostiarrak.

Domekakoa Euskadiko Txapelketako bosgarren proba izan zen, eta Gipuzkoan egiten zen lehena –orain artekoak Araban eta Bizkaian egin dituzte, eta bi proba geratzen dira txapelketa amaitzeko–. Orain arte, motokroseko probak izan ditugu gurean, baina ez cross country-koak: "Modalitate hau motokroseko edo enduroko motoekin egin daiteke. Motokroseko lasterketa batekin duen aldea da zirkuituko zati batean menditik sartzen ditugula, hau da, trialeko zona bat izaten dutela; eta horrekin batera zirkuituan zehar hainbat oztopo jartzen ditugula".

Hala, motokrosean azkartasuna ezinbestekoa da, eta cross country-a, berriz, iraupeneko proba bat da, pilotuek bi txanda izaten dituztelako; eta txanda bakoitza ordubetekoa izaten delako. Hor ere beharrezkoa da moto gainean azkarra izatea, baina ordubetez eutsi behar zaio erritmoari; hor dago gakoa. Hala, atzoko proban ez ziren egon motokrosean egoten diren salto ikusgarriak, baina mendiko zona oso ikusgarria izan zen, ikusleek gertu-gertutik jarraitu ahal izan zituztelako motoen nondik norakoak.

**ZIRKUITUA, BIKAIN**

Orain arteko motokros lasterketak Candy lantegiaren ondoko zelai batean egin izan dituzte. Domekan, berriz, Bergarako Garbigune atzean egin duten zirkuitu berria estreinatu zuten: "Goizeko lehen orduan zegoen lokatz apurra lehenengo motoak pasa eta berehala kendu da, eta egin duen beroarekin berehala lehortu da zorua. Hori bai, azken ordurako harri batzuk azaldu dira, hori izan da traba bakarra". Goizean ibilbidea moldatzen egin behar izan zituzten lanek dezente atzeratu zuten proba –16:00ak inguruan egin zuten sari banaketa–.

Cross country barruan bi kategoria daude: trofeo saria eta txapelketa saria. Eta, kategoria horien barruan senior eta junior mailako pilotuek jardun zuten. Txapelketa sarian puntako pilotuek hartzen dute esku –kategoria horretan ez zen ibarreko ordezkaririk egon–, eta trofeo sarian Debagoieneko bederatzi pilotuk hartu zuten esku –gehienak bergararrak, senior eta junior kategoriatan banatuta–.

Hala, senior kategorian azpimarratzeko lana egin zuen aurten behin baino gehiagotan aurrealdeko postuetan ibili den Iñigo Errastik, bosgarren sailkatuta. Garaikurra, baina, Aretxabaletako pilotu batek eraman zuen, Andoni Arenazak.

**ANTOLATZEN ETA LEHIAN**

Lasterketa antolatzen ibili ziren bergarar askok lan bikoitza izan zuten atzo, moto gainean ere ibili ziren-eta. Guztira bederatzi debagoiendar izan ziren: Iñigo Errasti, Zugaitz Salegi, Asier Blazquez, Mikel Gomez, Andoni Arenaza, Igoitz Gabilondo, Urtzi Markiegi, Asier Gutierrez eta Asier Arana.

ESANAK

**"Motokrosean azkartasuna behar da, baina hau iraupeneko proba bat da, txanda bakoitza ordubetekoa delako"**

**Haritz Mendizabal** > Antolatzailea

**"Oraindik zirkuituari falta zaio lurra botatzea, baina hona etorri den jendeak esan digu oso zirkuitu txukuna dela"**

**Asier Blazquez** > Antolatzailea



Txapelketa kategorian onena izan zen Borja Nieto, zirkuituko zona menditsuan. JOSETXO ARANTZABAL

KONTUAN HARTZEKO

## Zirkuitu egonkorra bilakatzeko beste aurrerapauso bat

Debagoienean mendian ibiltzeko motorrek zale asko dituzte, baina orain arte ez da zirkuitu egonkorrik egon. Bergaran koadrila polita ibiltzen da motokroseko edota enduroko motoekin lehian, eta eurekin batera ibarreko beste hainbat lagun ere ibiltzen dira.

Baina, zirkuitu egonkor bat ez izateak esan gura du kanpora joan behar dutela entrenatzera, eta ez entrenatzera bakarrik, baita txapelketetan esku hartzera ere.

**LURRA BOTATZEA FALTA DA**

Hala, gauzak ondo badoaz Bergarako zirkuitua egonkor bilakatuko da: "Horretarako gabiltza lanean. Oraindik lurra botatzea falta da, baina hona etorri den jendeak esan digu oso zirkuitu txukuna dela", adierazi zuen Asier Blazquezek.

Hala, irailean izango da zirkuitu horretan bertan hurrengo hitzordua. Bergara Hiriko motokross txapelketa egingo dute irailaren 19an.




**IKUSLE ARTEAN** Garikoitz Ulacia eskuinetara egiten zuen kurba itxia hartzeko gertu, eskuin hanka aterata. XABIER URTZELAI




**MALDA GORA** Asier Blazquez bergararra mendiko zonan gora. X.U.




**GARAIKURRAREKIN** Aretxabaletako Andoni Arenaza, junior kategorian onena. X.U.

## sailkapenak

**TXAPELKETA, SENIORRAK**

1.-Borja Nieto Hazas
2.-Oscar Galdeano Zaballa
3.-Roberto Tapia Aldaraborda
4.-Iñaki Iturbe Aseginolaza
5.-Francisco Javier Gomez Velarde
6.-Iban Ibarra Larraskitu
7.-Egoitz Peñagarikano Sorondo
8.-Pedro Luis Gorospe
9.-Enrique Garcia Gonzalez

**TXAPELKETA, JUNIORRAK**

1.-Alberto Kortajarena Altuna
2.-Aurelio Ruiz Garcia
3.-Aitzol Arbe Mendizabal
4.-Alex Maza Bizkarguenaga
5.-Julen Gil Intsausti

**TXAPELKETA, BETERANOAK**

1.-Jon Santamaria Ortiz
2.-Joseba Hernandez Fernandez
3.-Jose Antonio Anpurua
4.-Asier Alzola De Armentia
5.-Karmelo Egiarte Goikolea

**TROFEOA, SENIORRAK**

1.-Iñaki Arteagoitia Arteta
2.-Ibai Merketegi Zabaleta
3.-Alberto Macias Sanchez
4.-Koldobika Vigiola Goikoetxea
5.-Iñigo Errasti Askasibar (Bergara)
9.-Zuhaitz Salegi Agirre. (Bergara)
15.-Asier Blazquez Murillo (Bergara)
17.-Mikel Gomez Martin (Bergara)

**TROFEOA, JUNIORRAK**

1.-Andoni Arenaza (Aretxabaleta)
2.-Alex Hidalgo Garcia
3.-Unai Erdocia
4.-Josu Carmaco
5.-Eusebio Baranda
8.-Igoitz Gabilondo (Bergara)
10.-Urtzi Markiegi (Bergara)
13.-Asier Gutierrez (Bergara)
25.-Asier Arana (Bergara)

GUREKO PILOTUAK



**Asier Blazquez**
Bergara

## "Bergarara ekarri dugu Cross Countrya, eta ondo irten da dena"

"Lasterketa oso gogorra izan da, ordubeteko bi txanda egin ditugulako, baina jendea oso gustura geratu da. Niretako lehenengo lasterketa izan da cross country-an, normalean motokrossean ibiltzen naizelako. Baina, Gipuzkoako federazioak asmoa zuen horrelako proba bat egiteko, eta Bergarako jendea ere animatuta zegoen modalitate hau hona ekartzeko, horrenbestez, gustura".



**Asier Gutierrez**
Bergara

## "Hasieran zirkuitua motz geratu behar zenaren beldur ginen"

"Etxean korritzea beti da berezia, lagunak etortzen direlako zirkuitura, eta polita izaten da. Gainera, urtean zehar batera eta bestera ibiltzen gara motorrekin, eta behingoz etxean eginda, ondo. Lasterketa, bestalde, oso gogorra egin zait, baina osorik amaitu dut. Eta, zirkuituarekin ere jendea pozik geratu da. Hasieran bagenuen motzegia ote zenaren beldurra, baina ez, pilotuak gustura geratu dira".



**Iñigo Errasti**
Bergara

## "Bigarren txandan urduri jarri eta lurrera erori naiz"

"Trofeo kategorian lehiatu naiz eta oso pozik geratu naiz bosgarren postuarekin, nahiz eta gogorra izan den. Lehenengo txandan laugarren egin dudanean urduri samar jarri naiz, eta bigarren txandan ez naiz horren ondo ibili. Lurrera ere erori naiz, baina atzetik aurrera egin dut eta hainbat piloturi aurrea hartu eta gero seigarren amaitu dut. Hala, bi txanden emaitzak lortuta bosgarren sailkatu naiz".

**GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP. ELKARTEA**

# BATZAR OROKORRA

## DEIALDIA

**Data:** 2009ko ekainaren 11n.
**Ordua:** 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.
**Tokia:** Arrasateko Kulturaten izango da, areto nagusian.

## GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2008ko ekainaren 5eko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2008ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2008ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza batzordeko kideen txostena irakurtzea
6. Bazkide ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena. 2009ko kudeaketa plana eta aurrekontuak onartzea.
7. Hasierako ekarpenak eta bazkideen sarrera kuota eguneratzea, KPIa hartuaz eguneratze indizetzat.
8. Kontseilu Sozialeko kide berriak izendatzea.
9. Zaintza batzordeko kideak izendatzea.
10. Egoitza sozialaren aldaketaren berri ematea estatutuen 3. artikuluaren arabera.
11. Galderak eta eskaerak.

Arrasaten, 2009ko maiatzaren 26an.
Errektore Kontseiluko lehendakaria.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**PILOTA** > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

# Bergara Herri Arteko Txapelketako finalera, 32 urte geroago

Bergaran gertatu bezala, 2-1 nagusitu zitzaion zapatuan Donostiari, eta Hernani izango du aurkari domekako finalean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Hogeita hamabi urteren ostean, Bergarak Herri Arteko Pilota Txapelketako finala jokatuko du berriro. Reyes Azkoitiaren pilotariek Donostia kanporatu zuten zapatuan, Atano III. pilotalekuan, eta hara itzuliko dira datorren domekan, finala jokatzera. Hernani izango dute aurkari domekako finalean.

Aurreko astean etxean gertatu bezala, Bergara 2-1 nagusitu zitzaion Donostiari zapatuan, Atano pilotalekuan. Bergaratik joandako zale askoren laguntza izan zuten bergararrek. Lehenbiziko partiduan, kadete mailakoan, Mikel Gallastegik eta Beñat Rezustak 22-6 irabazi zioten Donostiako ordezkariei, Manzisidorri eta Manterolari (Bergaran baino emaitza hobeagoa, han 22-14 irabazi baitzuten etxekoek). Jakinekoa zen gazte mailan aukera gutxi zutela bergararrek: 22-6 galdu zuten Bergaran jokatutako partiduan eta zapatuan ere donostiarrek erraz irabazi zuten, 22-3. Arzelusek eta Zinkunegik osatutakoa zen donostiarren bikoterik indartsuena eta halaxe erakutsi zuten zapatuan.

**INDARRA ETA ESPERIENTZIA**

Gauzak horrela, senior mailakoa bihurtu zen zapatuko partidu erabakigarria. Eneko eta Ander Muguruzaren eskuetan zegoen finalerako txartela eta ez zuten hutsik egin. Reyesek azpimarratutako moduan, "Enekok indarra jarri zuen aurreko koadroetan eta Enekok esperientzia, atzean". Bergara markagailuan 17-13 aurretik zela, donostiarrak Baez atzelaria aldatzeko eskaera egin zuten; mina hartuta kantxa utzi beharrean egon zen Baez Bergarakoen 18. tantoaren ondoren. Garrantzi handiko tantoa izan zen aldaketa egin eta sakea bergararren esku zelako. Zale bergararrek protesta egin zuten pentsatzen zutelako aldaketa egitea ezinezkoa zela, baina araudiak horretarako aukera ematen du. Edozein modutan, Aitzol Fernandez Baezen ordezkoak gauza gutxi egin ahal izan zuen. 75 minuturen ostean, 22-15 irabazi zuten Muguruzutarrek. Partiduaren ondoren, Reyes Azkoitiak sakelekoan jasotako zorion agurren artean, Enrike Huizi Usurbilgo pilotariarena zegoen. Lagun handia du eta zera esaten zion usurbildarrak: *"Anderrena punto y aparte. Txapelakin itsutu gabe gozatu momentua"*. Halaxe egin zuten; festa handia izan zen partidu amaieran. Autobusez eta autoetan joandako zaleak bidaia alaia egin zuten Donostiatik bueltan.



Eneko Muruguzak lan handia egin zuen aurreko koadroetan. JOSETXO ARANTZABAL

**FINALERAKO SARRERAK**

Reyes Azkoitia entrenatzailea pozez zoratzearren zegoen. Behin bakarrik irabazi du Bergarak Herri Arteko Txapelketa, 1968ko lehen ekitaldian, hain zuzen; eta 32 urte dira azken finala jokatu zuenetik. Orduan Azkoitiaren kontra galdu zuten, Andoainen.

Bergarak 700 sarrera izango ditu domekako finalerako, eta astean zehar jarriko dituzte salgai, 12 eta 6 eurotan. Era berean, autobusa antolatzeko asmoa daukate. Donostiatik bueltan, Reyesek finala irabaztea finalerdia irabaztea bezain pozgarria izango ote den galdetzen zien kadeteei, Gallastegiri eta Rezustari. Ikusi behar.



Javier Bilbao, Enrique Oregi eta Valentin Arrese, Reyes Azkoitiarekin. BERGARA KE

## Finalerako sarrerak, Valentin Arreserendako

Bergara KEko Pilota Sailak egindako zozketan, Valentin Arresek eskuratu du lehen saria: atzo Irujok eta Olaizolak jokatutako finalerako bi sarrera eta 500 euro. 4.622 izan zen saritutako zenbakia. Enrique Oregik eraman zuen bigarren saria (Kantabriako Palacio de Guevara hotelean bi lagunendako asteburu bateko egonaldia) eta Javier Bilbaok, berriz, hirugarrena, Errekin bi lagunendako afaria eta 100 euro.



GOIENKARIA

## Mondra futbol taldeko gaztetxoak, gustura Madrileko esperientziarekin

Mondrako infantil mailako futbolari gaztetxoek Atletico de Madrid eta Puerta Bonita taldeen aurka jokatu zuten aurreko asteburuan, Madrilen. Helburua, futbola aitzaki erabilita, harremanak sendotzea zen eta, beraz, arrasatearrek lagun gehiago dauzkate Madril aldean aurrerantzean. Hiruko txapelketa bukatu ondoren gaztetxoei oroigarri bana banatu zizkieten. Era berean, Madril eta Segovia bisitatzeko aukera izan zuten arrasatearrek. Goiko argazkian, Atletico de Madrid taldekoekin.

**FUTBOLA** > NESKAK

## Mondrako neskek 1-4 irabazi zuten Gasteizen

Mondra igoera bidean; Bergarako infantil mailako neskak Kopako txapeldun

**E.M.** > BERGARA

Mondrako senior mailako nesken futbol taldeak 1-4 irabazi zion zapatuan Gasteiz Cup taldeari, Betoño futbol zelaian. Zapatuko garaipenaren ostean, igoera faseko partidu erabakigarria jokatuko dute arrasatearrek Abantoren aurka domeka eguerdian Mojategin.

Igoera fasean jokatutako partiduetatik bi irabazi eta bakarra galdu dute Mondrakoek, Abantoren aurka hain zuzen; Bizkaian, 2-0. *Gol averagea* kontuan izanda, interesgarria litzateke bi goleko abantaila gainditzea domekan.

Zapatuan partidu ona egin zuten arrasatearrek. Lehen zatian 1-2 aurreratu ziren eta bigarrenean beste bi gol egin zituzten. Maitane Roak eta Maialen Lopezek bina gol egin zituzten.

**KOPA, BERGARARA**

Bergara KEko infantil mailako neskek kopako finala irabazi zioten zapatuan Donostiako Intxaurgiri, 4-2, Zumaian. Melaniek egin zituen mahoneroen lau golak. Joserra Lasa da taldeko entrenatzailea.

Imanol Carmona> Areto futbol jokalaria

# "Igoeraren gakoa ilusioa eta esfortzua izan da, talde bat garela erakutsi dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

**Areto futboleko UDA-Orly taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen joan den zapatuan. Gainera, horrekin batera bigarren mailarako igoera ere lortu dute aretxabaletarrek. Jokalari erabakigarria izan den Imanol Carmonarekin izan gara aurtengo denboraldiaz berbetan.**

**Zorionak egindako denboraldi borobilagatik! Nolako urtea izan da?**

Eskerrik asko. Taldea nahiko ondo ibili dela esango nuke, kontuan hartuta lagun talde bat garela. Lehenengo jardunaldietan arazoak izan genituen eta entrenatzaile barik geratu ginen; horren ondorioz, behera egin genuen jokoan.

Gero, indarrak berreskuratu eta bolada ona hartu genuen. Azken aurreko jardunaldira arte lehenengo postuan ibili gara; gero, Euskaldunak aurre hartu zigun. Denboraldi guztian lau partidu bakarrik galdu ditugu.

**Partiduko gol erabakigarria sartu zenuen finalean, eta baita finalerdian ere. Nola gogoratzen dituzu partiduak?**

Finalerdia oso parekatua izan zen. Husna berdinduta egon ginen; hortaz, edonork irabaz zezakeen lehia. Partidua amaitzeko bi minutu falta zirenean sartu nuen gola. Golak garaipena emateaz gain, bigarren mailarako txartela eman zigun. Esan gura dut partiduan gogor egin genuela lan guztiok. Nik zortea izan nuen eta gola sartu nuen.

Finalean, berriz, hainbeste ilusio genuen, hasieratik ikusi genuela irabazteko aukera. Amaiera aldera erritmoa jaitsi genuen eta bi gol sartu zizkiguten, baina ondo ibili ginen.

**Zaleen babesa, ezinbestekoa izan da.**

Bai, zale asko joan ziren Zubikoa kiroldegira taldea animatzera. Gainera, esan behar da urte guztian zehar izan dugula zaleen babesa.

**Zure ustez non egon da arrakastaren gakoa?**

Gakoa sakrifizioa izan da. Oso ondo defenditu dugula esango nuke. Hainbat partidutan, baina, ustez irabazteko samurrak zirenetan, ez gara hain ondo ibili. Indartsuen aurka, ostera, oso ondo jokatu dugu.

Gakoa, esfortzua eta ilusioa izan da. Talde bat garela erakutsi dugu, eta aurrera egiteko prest gaudela.

**Hasieratik jarri zenuten helburutzat igoera?**

Bai. Aurreko urteetan nola ibili garen ikusita, bagenekien igoera lortzeko aukerak geneuzkala. Gainera, esango nuke datorren urtean berriro ere igoera lortzeko moduan gaudela. Ez dut esango samurra izango denik, baina borrokatzeko moduan behintzat egongo gara.

**Datorren urtera begira, nabarituko duzue aldea?**

Beste maila bat da eta uste dut maila altuagoa egongo dela. Hala ere, jokatu izan dugu bigarren mailako taldeen aurka, eta baita lehenengo mailan egon direnen aurka ere, eta ez dira gu baino askoz gehiago izan. Uste dut goiko taldeen aurka jokatzeko besteko taldea badaukagula.

**Jokalari bezala, nola definituko zenuke zure burua?**

Bizkarrez ondo defenditzen dudan jokalaria naiz. Baloia arin mugitzen dut; batzutan gauzak ondo egiten ditut, eta beste batzutan ez.

Nire alde ona abiadura eta definizioa dela esango nuke. Txarra, ostera, batzutan defendatzea kostatzen zaidala.

**Zaldibarren ere jokatu izan duzu. Irabazi duzu ligarik?**

Bai, urteetan jokatu izan dut, eta irabazi ditut txapelketak. Oso ezberdina da Zaldibarren jokatu edo federatutako talde batean jokatzea; batez ere, Zaldibar gogorra da kanpoan jokatzen delako, eta lehiakortasun gehiago dagoelako.

**Aretxabaletan ez dago kiroldegirik. Non jokatzen duzue?**

Kiroldegia bota zutenean Eskoriatzara joan ginen; Oñatin ere jokatu izan dugu. Behin, Almenen jokatu genuen eta gustura geratu ginenez han jarraitu dugu. Oso kantxa ona da, jendea gainean egoten da-eta.




Imanol Carmonak 31 urte ditu; bere esanetan *beteranoa* da dagoeneko. Beste urte batez, behintzat, areto futbolean jarraitzeko asmoa dauka. ARANTZAZU EZKIBEL

**"Datorren urtean ondo ibiltzeko moduko taldea daukagu, ez dugu arazorik izango"**

**"Zaldibar gogorra da kanpoan jokatzen delako eta lehiakortasun handia dagoelako"**

## Zaleen babesa ezinbestekoa izan zen finalean

Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatu zuten joan den zapatuan Gipuzkoako finala UDA-Orlyk eta Andoaingo Euskaldunak. Partidua Oñatin zela aprobetxatuz, Aretxabaletako zale mordoa batu zen Zubikoan. Jarraitzaileen babesa ezinbestekoa izan zen, beraz, txapelketa irabazteko (2-4). Carmonak esan digu, bereziki eskertu gura dituela taldeko zaleak, babesleak, eta baita UDAko presidente ohi Jokin Antxia: "Finalerdia ikusten egon zen Antxia Almenen, eta taldekide batek beste gozatu zuen".




UDA taldeko jokalariak garaikurrarekin. GOIENKARIA



**Arantza Hernandez**
> Irakaslea

Joan den astean litxarrerien inguruan azaldutakoa osatzera dator astelehen honetako artikulua. Gaur, litxarkerien ezaugarri garrantzitsuenak zeintzuk diren aipatuko dizuet.

**IZOZKIAK**
Kremadunek (*Kornete*-ek, esaterako) koipe saturatu kantitate handia dute, azukre asko eta 200-250 kaloria inguru 100 gramoko. Esnedun izozkiek (izozkitegietakoek) kaltzioa dute, baita azukrea, koipeak eta kaloria gehiegi ere; horregatik ez dira gomendagarriak eguneroko kontsumorako. Izozdun izozkiek (polo eta flashek) azukre eta adigarri asko dituzte eta 60-80 inguru kaloria 100 gramoko.

**FRUITU LEHORRAK**
Elikatze aldetik ezaugarri oparoak dituzten jakiak dira: kaltzioa, osasuntsu diren gantzak, zuntza eta azido foliko kantitate handiak, baina euren kaloria kopuru handiagatik ez dira gomendagarriak eguneroko kontsumorako.

Gordinik kontsumitu behar dira. Txigortzean: bitaminak desagertzen dira eta koipeen egiturak aldatzen dira.



Hainbat ume litxarreriak jaten. ARIZMENDI

**OSASUNA** > ELIKAGAIAK

# Litxarreria: koloretako pozoia (2)

Gatzitzean: osasunerako kaltegarri bihurtzen dira.

Giltzurrunek lan gehiago egin behar dute ur gehiago edatera derrigortzerakoan.

Hipertentsioa eragiten dute.

Mintzetan dauden koipeak sendotzen dituzte, bihotzeko gaixotasunak erraztuz.

Frijitzean: kaloria kopurua handitzen da eta koipe ez osasuntsuak ugaritu.

Garrapinatzerakoan: kaloria kopurua igo egiten da eta baita karbohidrato azkarrena ere.

Adi datu hauetara: gatzdun pipa pakete handi batek (175 gramo) 1.067,5 kaloria, 9.1 gramo koipe-ase eta 5.95 gramo sodio ditu. Haur batek 1.500-1.800 kaloria behar ditu eguneko eta 3-5 gramo gatz, gehienez.

**OPILAK**
Azukre azkarrak eta koipe ugari dute (gantz horien artean abere jatorritakoak, kokodunak eta *trans* deitutakoak dira gehienak); kolesterola igotzen dute eta bihotzeko gaixotasunak areagotu.

**TXOKOLATEA**
100 gramoko 540 kaloria ditu txokolateak -almendraduna eta esneduna, hartzen badugu-, azukre asko eta daukan koipe kopuruaren erdia asea da, hau da, osasunerako kaltegarriena. Horrez gain, 49.5 gramo azukre eta 15.5 gramo koipe saturatu ere baditu txokolateak.

## GOZOKIEN KONTSUMOAREKIN LOTUTA DAUDEN OHIKO GAIXOTASUNAK

Gozoki asko kontsumitzeak ondorio kaltegarriak dakartza:

**> JATEKO GOGO EZA**
Gozokiek, opilek, izozkiek eta gasdun edariek, hirurek, dituzten azukre kopuru handiagatik, jateko gogoa kentzen digute; batez ere, hori gertatu dakiguke jatordu nagusien aurretik kontsumitzen badugu. Gauza bera gertatzen zaigu *snack*, opilak eta koipe gehiegi dituzten elikagaiak kontsumitzen ditugunean ere.

**> TXANTXARRA**
Azukreak txantxarra sortzen duten bakterien garapena errazten du. Hortzen garbitasunak txantxarra saihesten du, baina ezinezkoa da hortzak garbi mantentzea produktu horiek eguneko edozein momentuan kontsumitzen baditugu. Bestalde, gozoki asko itsaskorrak dira; eta horrek ere, txantxarra izateko aukera areagotzen du.

**> ALERGIAK**
Gehigarriek gozokiak duten zaporea, kolorea eta usaina erabat indartzen dute. Batzuk azalean erreakzioak eragiten dituzte, baita arnas estua ere sor dezakete, eta aditu batzuk minbizi sortzaileak izan daitezkeela diote.

**> LODITASUNA**
Tojo doktoreak (dieta atlantikoan eskarmentu handia daukanak) dioenez, gozokiak edo edari azukretsuak egunero kontsumitzeak urteko 4 kilo loditzea ekar dezake.

**> BIHOTZEKO ARAZOAK**
> Azukrea gehiegi kontsumitzeak diabetesa edukitzeko aukera areagotzen du.
> Gatz gehiegi kontsumitzeak hipertentsiora bultzatzen du.
> Koipea kontsumitzeak bihotzekoa eragiten du gero eta jende gazteagoan.

**> HIPERAKTIBITATEA ETA AGRESIBITATEA**
Txikiek azukrea kontsumitzen badute tripa hutsik dutenean, adrenalina igoera gogorra izan ohi dute eta antsietatea, urduritasuna eta kontzentratzeko arazoak sortzen zaizkie. Helduek ez dute horrelako ondoriorik izaten.



**> OSTEOPOROSIA**
Azukre zuriak kanabera azukreak dituen mineralak eta bitaminak (euren artean kaltzioa) behar ditu metabolizatzeko. Azukre finduak digestiorako behar dituen mineralak eta bitaminak gorputzetik hartuko ditu. Kaltzio falta hori osteoporosia bihur daiteke epe luzean.

## Iradokizun batzuk

> Litxarreria guztiek egiten diote kalte osasunari oro har; kalte gutxien sortzen dituztenak etxean egindako pastelak eta txokolate beltza dira.
> Fruitu lehorren artean intxaur, hur eta almendrak dira osasuntsuenak; betiere, txigortu eta gazitu gabeak badira, eta gutxi janda.
> Azukre gabe hobeto, baina erabiliz gero neurrian; azukrearen ordezkoak ere kaltegarriak izan daitezke.
> Merienda osasuntsuena: ogitartekoa eta fruta. Txokolatezko ogitarteko batek opil, kruasan eta sobatuek baino hiru edo lau aldiz koipe saturatu gutxiago du.
> Opil industrialak etxean egindakoengatik ordezkatu daitezke. Horiek, nahiz eta kaloria asko izan, koipe osasungarriekin presta daitezke: oliba eta ekilore olioa. Jaki gomendagarriak ere sar daitezke: fruta, fruitu lehorrak edota esnekiak.

## ZER EGIN JAKIA KONTRAKO EZTARRIRIK JOANEZ GERO?

Zenbait litxarreriaren tamaina, forma eta gogortasunagatik (gozokiak, karameluak, fruitu lehorrak...) horiek kontrako eztarritik igarotzeko aukera dago, horregatik horien kontsumoa lau eta bost urtetara atzeratzea gomendatzen da.

Hori gertatuz gero bi maniobra tartekatzen joango gara:

**>** Pertsona behera begira jarri eta bost kolpe lehor eman bi omoplatoen artean esku ahurrarekin
**>** Heimlich-en maniobra.



Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



**> KANTARI**
Ume eta gaztetxo uholdeak kantuz eta dantzaz bete zuen Amaia Udal Antzokia **> 30-31**



**> KONTZERTUA**
Musika Eskolako Bergarako eta Antzuolako ikasleek ipuin musikatua eskaini zuten **> 32**



**> LITERATURA**
Koldo Eleizalde literatura lehiaketako sari banaketa jendetsua egin zuten zapatuan Zabalotegin **> 32**



Irlandako Blood Or Whiskey taldeak instrumentu tradizionalak eta berriagoak, biak, erabiltzen ditu. JOSETXO ARANTZABAL



Arrasateko Foxxy Boxxy Kajoi tabernan. J.A.



Aretxabaletako Nealta Folla, Taupa tabernaren kanpoan. J.A.

# Elkartasuna eta musika eskaintza zabala, zapatukoa

**NON:** Arrasaten; Iturripe, tabernetan.
**EGUNA:** Zapatua, ekainaren 6a.
**ESTILOAK:** Rock, punk, metal, folk...

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Dagoeneko dudarik ez zegoen arren, laugarren edizioan argi geratu da Elkartasun Eguna aldarrikapen zabal baten aldeko ekimena izateaz gain, musika eta esku-hartzearen aldetik ere itzela dela; izugarria eskaintza eta herritarren erantzuna.

Herri bazkariaren ostean, ia hogei taldek egin zituzten kontzertuak taberna kopuru berean, eta gehienak bete-beteta egon ziren. Nabarmentzekoak? Ain_1 eta Anger taldeek elkarrekin nahastuta Monten egindako ikuskizuna, Fiachras taldeak Irati garagardoz eta malenkoniaz bete izana, Xasta taldeak eskainitako Rage Against The Machine-n bertsio sorta borobila, Mery May bakarka zein taldean (birritan) aritu behar izana eta beste asko.

Gauean, kontzertu erraldoia, atzerriko talde gonbidatuekin. Euriaren beldur, Portaloira Topaguneak Iturripera eraman zuen jaialdia. Arrasateko Aggresive Combat izan zen lehena. Des-Kontroleko *Magu*-ren laguntzarekin (gitarra jotzen) kantu ezagunenak eta Cock Sparrer eta bestelako punk-Oi! taldeen bertsioak eskaini zituzten. Ez hori bakarrik, Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* ere jo zuten, eta ikusleek kantuan hartu zuten euskal klasikoa.

**TRADIZIOA ERALDATZEN**

Horien ostean, Irlandako Blood or Whiskey taldekoak gogotsu irten ziren agertokira. Esku-soinua, banjoa, txirula, gitarrak, baxua eta bateria aldean zituztela, Irlandako folkaren bertsio azkar-azkar eta ganberroa egin zuten, punk-rock-arekin mugan dagoena; ez ziren une bat ere gelditu. Ederto; pena, soinuak ez ziela larregi lagundu.

**ALEMANIARRAK, HUNKITUTA**

Jarraian, Die Walter Elf. 80ko hamarkadakoak, iraganean Leintz ibarrean oso ezagunak egin ziren, nahiz eta Euskal Herrira inoiz ez etorri. Punk melodikoa, tronpetekin lagunduta, konposizio dantzagarri bezain itsaskorrak eta umorea barra-barra. Oso soinu ona eta kantu borobilak: *Heut´oder nie* lehen diskoko *hit* guztiak jo zituzten, askoren gozamenerako; eta eurak ere hunkitu egin ziren. Ziur berriro etorriko direla! Zoritxarrez, Des-Kontrol eta Arkada Sozial ezin izan genituen ikusi.

Kantari 2
Arrasaten























# Arrasaten ere, fin asko

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Oñati eta Aretxabaletaren ostean, Arrasate izan du asteburu honetan geltoki Kantariren bigarren edizioak. Arrakasta handiz gainera; izan ere, ia 200 neska-mutiko igo ziren Amaia antzokiko taula gainera Goiena Telebistaren programan parte hartzeko.

Binaka, hirunaka, launaka eta baita seinaka ere, momentuko urduritasuna gainditu eta azken asteotan buru-belarri entseatutako abesti eta dantzen erakustaldi bikaina egin zuten. Kantu guztiak euskaldunak, Zaramarren *Iñaki* klasikoetatik hasi eta Pirritx eta Porrotxen *Suhiltzaile izan nahi dut* bezalako arrakastetaraino.

**ARAMAIOARRAK ERE BAI**

Arrasateko gaztetxoek ez ezik, Aramaiokoek ere erakutsi zuten euren abilezia Amaia antzokian. Denera 22 aramaioarrek parte hartu zuten sei taldetan banatuta.

Parte-hartzaileek bakarrik ez, ikusleek ere protagonismo handia izan zuten: lagunak eta gurasoak agertokitik gertu egon ziren, partaideak animatzen eta buruz zekizkiten abestiak kantatzen. Amaia Txintxurreta izan zen beti bezala, denen gidari.

Bergaran egingo du hurrengo geralekua Kantariren trenak eta seguru, orduan ere, kanturako ilusioz betetako bidaiari asko jasoko dituela.














## HONELA IKUSI ZUTEN PARTAIDEEK ETA GURASOEK



**Maddi, Uxue, Andoni eta Sofia**
Partaideak

Zaramaren *Iñaki* kantatu zuten aramaioar hauek. "Asko gustatzen zaigu abestia, ez genuke aldatuko" esan ziguten euren saioa amaitzean. "Urduri geunden" onartu zuten, "baina asko entseatu dugu eskolako atseden orduetan".



**Lourdes eta Manu**
Gurasoak

Alaba ikustera joan ziren, eta esan zigutenez, egunean zehar urduri egon zen arren, ondo egin zuen: "Ideia ona da Kantari, haurrak pozik ibili dira".



**Irantzu, Sara, Miren eta Maite**
Partaideak

"Agertoki aurrekoek arreta galarazi digute, baina tira..." Penaz zegoen laukote arrasatearra, baina orokorrean gustura ibili zirela gaineratu zuten. Telebistan ikusteko gogoz zeudela ere esan zuten



**Liher, Andoni, Iker eta Iban**
Partaideak

Tokatu zitzaien abestia baino Des-kontrolen bat nahiago izango zutela esan arren, ikusleak eurenganatu zituzten dantzan egindako *pino*-ekin..

**MUSIKA** > 'BENAN ETA BEGIGORRI MUNSTROA'

# Musika Eskolako Bergarako eta Antzuolako ikasleek ipuin musikatua eskaini zuten

Michael Hurd-ek konposatutako ipuinaren euskarazko moldaketa egin zuten, Marije Ugaldek zuzenduta; bete egin zen Torresoroa aretoa

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Musika Eskolako ikasleek *Benan eta Begigorri munstroa* ipuin musikatua eskaini zuten egubakoitz arratsaldean Antzuolan, Torresoroan. Taula gainean 100 gaztetxo aritu ziren eta 200 bat lagun ziren ikusleen artean. Guztiek gozatu zuten Bergarako eta Antzuolako ikasleek eskainitako ikuskizunarekin.

*Apirilean musika* egitasmoaren barruan, aurten Bergaran estreinatutako lana da *Benan eta Begigorri munstroa* ipuin musikatua. Antzuolako emanaldia hobea izan zen eta horretan zerikusia izan zuen aretoak. Horrelako ikuskizunetarako ondo gertatuta dago Torresoroa.

**EUSKARAZKO MOLDAKETA**

Lehenbiziko zatian Musika Eskolako Hasiberrien abesbatzaren (5-8 urte) eta Haurren abesbatzaren saioa izan zen; eta jarraian, Antzuolako ikasleen laguntzarekin (23 lagun) Michael Hurd-ek konposatutako ipuinaren euskarazko moldaketa (Rosa Narbaizak euskaratuta) egin zuten, Marije Ugalderen zuzendaritzapean. Marijo Juaristi eta Amaia Urdangarin irakasleek klarinetearekin eta pianoarekin lagundu zuten, hurrenez hurren. Eszenako lanaren ardura Valen Moñuxek dauka eta dekoratuena Esti Alkortak. Bukaeran, ipuineko azken kantua hiru aldiz eskaini behar izan zuten gaztetxoek, ikusleek txalo artean eskatuta.



Egubakoitzean Torresoroan egindako ikuskizuneko irudi bat. JOSETXO ARANTZABAL

**LITERATURA** > KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETA

# Aretoa gainezka eta ume eta guraso ugari kanpoan

Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketa ekitaldirako, txiki geratu zen Zabalotegi aretoa

**E.M.** > BERGARA

Antolatzaileek barkamenak eskatu behar izan zituzten, Zabalotegi aretoa txikiegia geratu zelako zapatu eguerdian egindako Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketarako. Hurrengo baten Udal Pilotalekura edo beste areto handiago batera jo beharko dute, sortutako ikusmina ikusita. Guraso eta gaztetxo bat baino gehiago geratu zen zapatuan Zabalotegiko aretora sartzeko aukerarik gabe.

**425 LAN ETA HAMAIKA SARITU**

Udaleko Euskara zerbitzuko datuen arabera, 425 lan aurkeztu dira aurtengo ekitaldira eta irabazleek sariak jaso zituzten zapatuan. Agurne Barruso Bergarako alkateak ere hartu zuen parte ikastetxeetako haurren musika emanaldiekin tartekatutako ekitaldian.



Argazkian, *Aupa kirolari* kantua abestu zuten Aranzadiko ikasleak. E.M.

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

OÑATIN

**Zientzia Teknologia Batxilergoa**

**Erdi Maila**
- Mekanizazioa
- Linea Eroanbideen eta Makinen Mantenu Elektromekanikoa
- Natur Ingurunean Kirol ekintzen gidaritza

ARETXABALETAN

**Erdi Maila**
- Soldadura eta galdaragintza
- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Mekanizazioa

**Goi Maila**
- Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak




**AURREMATRIKULA**
Ekainaren 1etik Ekainaren 12ra

**MATRIKULA**
Ekainaren 29tik Uztailaren 3ra

Ate irekiak: Ekainak 3, 18:00etan

**RM Zuazola - Larraña Institutoa**
San Lorentzo, z/g • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 21 50
E-posta: onatikobhi@goieskola.net
www.onati.net

ikasLAN Gipuzkoa

**ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola**
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
E-posta: ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com


ARIZMENDI IKASTOLAREN
LANBIDE HEZIKETA
2.0 PROFESIONALAK
ERDI MAILAKO ZIKLOAK
ERIZAINTZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK
DOHAINIK
GOI MAILAKO ZIKLOAK
ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA
AURREMATRIKULA EKAINAREN 1ETIK 12RA
902 11 20 25
LANBIDE@ARIZMENDI.IKASTOLA.NET
WWW.ARIZMENDI.EU
PRO
Arizmendi
ikastola

# iragarkilaburrak.com

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 84 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta balkoia. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Garajea eta trastelekua. 665 73 39 55

**Aretxabaleta.** Eraikitzen ari den duplexa salgai. Bitartekorik gabe. Bruesa Eraikuntzak. *www.bruesa.com.* Prezio negoziagarria. 626 60 11 07

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38

**Arrasate.** 58 metro koadroko etxebizitza salgai Erguinen. Hegoaldera begira. Berrikuntzak eginda eta altzariak ere salgai. 667 33 68 38

**Azpeitia.** Loiolabiden etxe ederra salgai, 3 gela eta egongela handia,denak balkoira irteerarekin, 2 balkoi, 2 komun eta sukaldea trasteroarekin. Igogailua eta berogailua ditu eta teilatuan terraza komunitarioa ere bai. Prezioa jaitsi dugu: 360.000 euro garajearekin. Telefonoa: 658 74 49 02

**Bilbo.** Alde Zaharreko metrotik 7 minutura, Solokoetxeko ingurune lasaian. Guztiz berriztatuta. Bizitzera sartzeko modukoa. 74 m2. 4 gela, sukalde eta komun zaharberrituak, berogailu indibiduala gas naturalarena, igogailu berria, trasteleku handia eta garaje plaza bat alokairuan aukeran. 94 415 67 49. Telefonoa: 656 77 20 50. Posta: *inakipb@euskalnet.net.*

**Ispaster.** Ispasterren 2 solairuko lonja garajeagaz saltzen. Pisu biak eta garajea komunikatuta daude. Lehenengoko solairua 257,75 metro karratu eta 122 metro karratuko sotoa. Banatzeko aukera, edozein jarduerarako aukera, mesoia egiteko proiektua du. 94 684 49 28

**Marieta.** 200 metro koadroko etxe bakarra. 5 logela, 37 metro koadroko egongela beheko suarekin. 3 komun eta sukalde bat. Garajea bi autorendako eta 856 metro koadroko loratégia (ureztatze automatikoarekin). Aukera ona. 628 45 09 62 edo 616 96 99 20

**Munitibar.** Munitibarren herri erdigunetik hurbil, 150 m2 ko 2 solairuko txalet ikusgarria igerilekuarekin eta 175 metro karratuko loratégia. Beheko solairuan: egongela handia, eskatza, bainu bat, despentsa eta 16 metro karratuko portxea. Lehen solairuan 3 logela, 2 bainu eta 6,5 metro karratuko terraza. Garaje itxia. 94 684 49 28

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko eraikin berria, igogailuarekin. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua, argia patioan. 652 70 12 49

**Oñati.** Etxebizitza salgai Moyua kalean. 70 metro koadro. Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea eta ganbara. Eguzkitsua, jantzia eta berritua. Deitu gauez: 943 53 37 45

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrietan. 80 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea, terraza eguzkitsua eta ganbara. Garajea barne. 665 74 98 47

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. 2002ko eraikina. Bi logela, sukaldea, bainua eta egongela. Guztira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toldoarekin etxebizitzaren atzealdean. 20 metroko garaje itxia. 617 20 60 06

**Oñati.** 76 metro koadroko etxebizitza salgai. Berritua. Dena kanpoaldera begira. Trastelekua eta garajea. 679 17 48 36 .

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lau logeladun etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat 2009-10 ikasturterako Arrasate erdialdean. 695 70 76 25

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Iturriotz kalean. 685 72 78 12

**Bergara.** Apartamentua ematen da errentan San Antonion. Sukaldea, egongela, logela bat, komuna, balkoia eta trastelekua. 46 metro koadro. Guztiz berriztua eta jantzia. 635 70 49 74

**Donostia.** Bi logeladun etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat 2009-10 ikasturterako Donostia erdialdean. 620 06 35 92

**Jaca.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Garajearekin. Urbanizazioa igerileku eta tenis pistekin. Haurrendako jolas parkea ondoan. 665 73 95 65 .

**La Puebla de la Barca.** ( Arabar Errioxa). Etxea ematen da errentan uztail eta abuztuan. 111 metro koadro. Sukalde ornitua, bi logela, bi komun, egongela eta 35 metro koadroko terraza. Aparkalekua, igerilekua eta berdegune komunak. 653 71 89 11

**Landak-Soustons.** Oporretarako eta asteburuetarako apartamentua alokatzen da, Landas-Soustonsen. Bi logela, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua eta garajea. Tel: 606 504 526.

**Noja.** Etxebizitza errentan. Golf zelaiaren ondoan. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, terraza, garaje itxia. Urbanizazio pribatua, igerilekua. 635 75 35 29

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Olakua auzoan, ikasturtean barrena. 660 40 06 75

**Ondarroa.** Ondarroan urte osorako apartamentua errentan. 653 01 03 68

**Oropesa del Mar.** Oropesa del Marren, Marina De Or-en apartamendua alokatzen da. Hondartzatik 50 metrora eta bainuetxetik 100 metrora. Egoera oso oneaneta prezio ekonomikoan. 617 779 018.

**Peñiscola.** 2 edo 4 pertsonarendako apartamentua. Hondartzako lehenengo ilaran. Guztiz jantzia. Igerilekua txirristekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00

**Torrevieja.** Apartamentua errentan. Urbanizazio lasaia hondartzatik hurbil. Bi logela, sukaldea, bainugela eta jangela-egongela; aire girotua etxe osoan. Terraza eta solariuma pribatua. Garajea sotoan eta igerileku komunitarioa. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

**Zarautz.** Jacan bi logelako apartamentua alokatzen da abuzturako. Nahi izanez gero, hamabostaldirako. Guztiz osatua. Garajearekin eta igerilekura begira. Umeekin joateko aproposa. Harremanetarako deitu: 649 20 89 84 telefono zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. 669 12 70 98

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 610 91 33 40

**Bergara.** Etxebizitza txikia errentan hartuko luke familia batek. 649 63 23 24 edo 696 38 10 07

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 93 59 29

**Bergara.** Edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke erdialdean. 658 77 90 46

**Bergara-Arrasate.** Logela errentan hartuko nuke. 658 77 90 46

**Debagoiena.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate edo Osintxun. 645 72 92 87

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Tlf. 658 70 19 53.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Aretxabaleta erdialdean gela alokagai. 616 75 41 30

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. 620 60 54 14

**Aretxabaleta .** Erdiguneko pixu berriztu batean gela bat ematen da errentan neska batentzat ekainetik aurrera. 616 75 41 30

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. 662 63 76 33

**Arrasate.** Mutil euskaldun langileak Arrasaten logela bat alokatuko luke.

**Arrasate.** Pertsona batendako logela ematen da errentan. 636 91 93 81

**Arrasate.** Logela ematen da errentan San Andresen, igogailu eta garajearekin. Pertsona arduratsua behar da, bertan bizi den pertsonarekin arduratu beharko du eta. Presazkoa da. 672 20 36 82

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 666 21 88 95

**Arrasate.** Arrasatear batek logela bat ematen du errentan. 675 71 57 03

**Arrasate.** Logela alokatuko nuke Arrasaten, ahal bada jende euskaldun, gazte eta langilearekin. Ekaineko lehen astetik aurrera sartzeko. 608 57 97 70

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, kalefakzioa eta argia) hilero. Unibertsitatetik gertu. 652 73 46 19

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Neskak bakarrik. 618 00 08 28

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan. Hiru gela, saloia, komun bi eta sukaldea. Etxe argitsua. 670 04 27 41

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan Bergaran. 690 97 44 32

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 628 45 10 37

**Bergara.** Logela bikoitza ematen da errentan, bi lagunendako. Erdialdean. 649 63 23 24edo 696 38 10 07

**Donostia.** Hurrengo ikasturteko lehenengo lau hilabeterako etxe bila nabil. 655 71 39 27

**Donostia.** Donostian konpartitzeko pisu bila dabilen 25 urteko neska naiz. Nire zenbakia hau da: 686 02 97 63

**Donostia.** Gela eskaintzen da, banandutako emakume bati konpainia egitearen truke. Ez da etxeko lanik egin behar, soilik konpainia egin. 65 urte ditu, emakume moderno eta irekia da, eta osasuntsu dago. Emakume gazte bat nahi genuke, baina zabalik gaude: helduak, etorkinak eta abar. Harremanetarako: *sansebastian70@yahoo.es*

**Donostia.** Pisukideak behar dira 3 edo gela gehiagoko alokairu berria bilatu eta partekatzeko Donostia erdialdean, Antiguan edo Grosen. Ekainetik aurrera urte baterako hasiera batean, nahiz eta presarik ez dudan. Lanean dabilen 26 urteko ingeniaria naiz.

**Donostia.** Pisua konpartitzeko pertsona bat behar da ekainetik aurrera. Nahiago egonaldi luzerako bada. Hondartzatik oinez 5 minutura dago, hiru logela ditu, egongela balkoiarekin, sukaldea eta komuna. Kanpora ematen du eta eguzkitsua da. Interesatzen bazaizu idatzi helbide honetara *arzaldua@hotmail.com* edo deitu 690 16 87 34 telefonora.

**Donostia.** 50 urteko emakumea, 12 urteko semearekin, eskaintzen da pisua konpartitzeko Donostia inguruan, konpainia eta etxeko lanekin laguntzaren truke. Gazteleraz hitz egiten dut, baina nire semeak euskaraz badaki.

**Gasteiz.** Ingeles filologiako hiru ikasle gara eta datorren urtean Gasteizen pisua konpartitzeko 2 lagunen bila gabiltza.Unibertsitatetik 5 minutura eta guztiz berriztua. Interesatuek idatzi e mail helbide hauetara: *sorgintsu88@hotmail.com*, olatx88@hotmail.com.

**Gasteiz.** Pisu bila nabil Gasteizen, ahal bada uztailean sartzeko. 25 urteko mutila naiz.

**Lasarte-Oria.** Logela alokatzen da pisu partekatuan Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona arduratsua eta ez erretzailea bilatzen da . 250Ä+ gastuak. Tel.: 686 93 27 14.

**Oiartzun.** 28 urteko neska bat naiz eta Donostian gela baten bila nabil. Konpartitzeko pisu batean egotea gustatuko litzaidake. Urte osoko pisua izatea nahiko nuke eta 2009ko Irailean sartu nahiko nuke. Nire korreoa: *oiartzun0@hotmail.com*

**Oñati.** Gela ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 14 39 41.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Santa Krutz 25-27an. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 46 36 71

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**ARRASATE**

**Taberna salgai txikiteo zonan.**

**637 55 14 40**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Umea zaintzeko emakumea behar dugu. 943 76 07 19 edo 665 74 47 64

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Arropak konpontzen ditut. 616 45 00 20

**Aretxabaleta.** 40 urtetik gorako neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 943 79 54 21

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Orduka edo etxean lo egiteko prest. 663 65 78 43

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita etxeko garbiketak egiteko ere. Mari. 649 30 13 60

**Arrasate.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 659 82 75 18

**Arrasate.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80

**Arrasate.** Neska gaztea asteburuetan zein astean zehar tabernan lan egiteko gertu. 697 42 79 88

**Arrasate.** Neska gaztea prest Debagoieneko edozein herritan ileapaindegian lan egiteko. 697 42 79 88

**Arrasate.** Ile apaintzaile laguntzailea eskaintzen da ilea moztu eta tinteak emateko. 666 20 06 03

**Bergara.** Edozein lan mota egiteko gertu nago. Maria Eugenia. 628 23 50 55

**Bergara.** Emakume esperientziaduna gertu dago pertsona helduen eta haurren zaintzan lan egiteko. Garbiketa lanak ere egiteko gertu dago. Norma. 630 88 54 46

**Bergara .** Neska lanerako gertu. Garbiketa lanetan edo adinekoak edo umeak zaintzen. Aste bukaeretan eta arratsaldeetan. 618 34 09 35

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 m², berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 m², 2 terrazekin 60+30 m², eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Aranerreka, 95 m², oso ondo.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
